

argia

2015eko abuztuaren 2a | LXXVIII. urtea | 2.472 zenbakia | 3,90 euro



ZER BIZIMODU EROSTEN DUGU IKEAN?



 **argia eguna 2015**

TXIKITIK ERAGITEN

ARGIA EGUN TXIKIA Arrasaten Irailaren 12an
Doke txapelketa, kale animazioa, pintxo-bazkaria, kontzertuak...

TRANSTZIZIOAK ERAKUSKETA

"Euskal Herriko historia hurbilari
begirada selektiboa" erakusketa
irailaren 18tik aurrera

BIZIKLETA MARTXA

Debagoienako bidegorrian zehar
(ARGIA Eguna bezperan)

BISITA GIDATUA

Aizkorri mendilerroaren bihotzean
dagoen Arrikrutz kobetara bisita
(ARGIA Eguna bezperan)

AZOKA ALTERNATIBOA

Herri eragileen azoka
lekuko produktuekin

IBILALDI KULTURALA

Oñatiko ondare historikoa
ezagutzeko ibilbidea

HERRI BAZKARIA

Bertako eta garaiko elikagaiekin
hornitutako bazkaria

JOLAS HEZITZAILEAK

Tailerrak haurrentzat eta helduentzat

JOLAS ALDARRIKATZAILEAK

Nortasun agiri arrotzen jaurtiketa

BIZI BARATZEA

Jakoba Errekondo eta
komikilariak galderak jorratzen

KALE ANIMAZIOA


Bertsolariak, batukada,
herrixka kantuan, ...

KONTZERTUAK

Inguruko euskal musika
taldeen emanaldiak

OÑATI - IRAILAK 20

Debagoienako harpidedunen eta eragileen laguntzarekin osaturiko egitaraua



OÑATIKO UDALA



Azaleko irudia:
JOSEBA LARRATXE
Azala: ANTZA
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA



ARGIAKO edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitara ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero.

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Bego Zuza. Zuzendaria: Estitxu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asurmendi. Kultura: Gorka Bereziartua, Garbine Ubeda. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza, Xabier Letona, Pello Zubiria. Euskara: Onintza Irureta. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaitz. www.argia.eus: Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produksioa: ANTZA, S.A.L.

Harpidetzak: Iraitz Agirre. Salmentak: Karlos Olasolo. Idazkaritza teknikoak: Aloña Soraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua, Berdaitz Goia, Olatz Korta, Bego Zuza. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarde. Harrera: Jone Arzallus. Web garapena: Asier Iturralde.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxe: 943 361048. Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 473163. Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580 Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argia.eus. Harpidetza: harpidetza@argia.eus. Erredakzioa: kazeta@argia.eus. Interneten: www.argia.eus. Lege gordailua: SS 837-2012. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L. Urtebeteko harpidetza: Euskal Herria eta Espainia: asterokoa, 145 euro; hilean bi ale, 77 euro; hilean behinekora, 41 euro. Beste atzeriak: 182 euro. Airez: 285 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea da.



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia

NON ZER

2015eko abuztuaren 2a, 2.472. zenbakia

ASTEKO GAIA

IKEA Barakaldotik Baionara lowcost bizimodua saltzen.
AXIER LOPEZ / 4

PERTSONAIA

XABIER IRUJO: «Genozidioa pairatzen jarraitzen dugu, baina ez zaio izen hori ematen». REYES ILINTXETA / 10

GAIK

XABIER ERRO: «Everesten ikurrina jartzeagatik espedizio-buruak komisariara deitu zituzten, atera kontuak!». GORKA AZKARATE / 15

IRITZIAREN LEIHOA

EUROPAR BATASUN ERREALA EDO IV. REICH-A

ASIER BLAS MENDOZA / 20

ALMITZA KOLDO ALDALUR / 23

KONTA NIEZAZUEKE... IMANOL ALVAREZ / 22

GORA PRO NOBIS ASISKO URMENTA / 19

TXANDAN Agur esan nahi ez. KATTALIN MINER / 22

ZIRTAK Gaueko itzalak haizean dilindan. JOXERRA GARZIA / 23

ERDIKO KAIERA

GURE KULTUR PROPOSAMENAK Abuztuan bizirauteko oinarrizko tresneria. ARGIAKO ERREDAKZIOA / 24

DENBORA-PASAK ANA ZAMBRANO / 31

LANDAREAK JAKOBA ERREKONDO / 32

● **BIZI BARATZEA, EMAN ETA HARTU** / 33

ZIENTZIA JOXERRA AIZPURUA SARASOLA / 34

DENBORAREN MAKINA NAGORE IRAZUSTABARRENA / 35

TERMOMETROA

ALAIN-G. GAGNON: «Identitateari buruzko eztabaidak Quebec nazioaren zatiketa ekarri du». JENOFA BERHOKOIRIGOIN / 36

COTE ROMERO: «Energi trantsizioa gutxi batzuen esku utz dezakegu, edo aukera baliatu herritarrak ahalduntzeko». UNAI BREA / 39

EKOLINGUA SOLAS JOKOA Hizkuntza egoerei aurre egiteko tresna. MALEN ALDALUR AZPILLAGA / 42

HILBERRIA Marcelo Usabiaga, ideiei eustearen ordaina. URKO APAOLAZA AVILA / 44

EUSKARA ALBISTEAK ONINTZA IRURETA AZKUNE / 45

EKONOMIAREN TALAIA JUAN MARI ARREGI / 45

MALTZAGATIK XABIER LETONA / 46

OHARRA

Datozen asteetan ez da ARGIA kaleratuko, udako oporraldia dela eta. Irailaren 6an itzuliko gara.

Barakaldotik Baionara lowcost bizimodua saltzen

Barakaldokoaren ondotik, IKEAren bigarren frankiziak ateak zabalduko ditu Baionan. Hamaika urteko aldea dago Barakaldoko eta Baionako “errepublika independenteen” artean, baina, altzari merkeez gain, bada Suediako multinazionalaren bi egitasmoak batzen dituen haria: bizimodu prekarioa. Lowcost ereduak bizi gaitu.

| AXIER LOPEZ |

ABUZTUAREN 26A egutegian ondo markatuta izango du batek baino gehiagok, altzarien eta dekorazioaren alorrean mundu mailako ikur-
rrak ateak irekiko baititu Baionan. Lehen hiru egunetan 40.000 bisitariren erromesaldia jasoko dute, frankiziako zuzendari Christian Kaelenen ustez. Izen ofiziala IKEA-Ametzondo izango du merkataritza-gune erraldoiak eta altzari dendarekin batera Carrefour, Mc Donald's, Mango eta Primark moduko multinazionalak – orotara 92 markak – beteko dute. Hiriburur, Mugerre eta Baiona udalerrietako 37.747 metro koadro okupatuko dituzte eta urtero 8 milioi lagun jaso nahi dituzte. Hasiera batean frankizia berria Irunen ezartzeko asmoa zuen IKEAk, baina erakunde publikoen presio eta laguntzen bidez Baionara erakarri zuten. Alain Iriart Hiriburuko alkateak patuari egotzi zion suediarren etorrera, 2013ko abenduan saltokiaren lehen harria ezartzeko ekitaldian: “Urdina eta horia dira Ikearen koloreak, Hiriburuko armarrin historikoaren berberak: elkar topatzeko eginak ginen”. Halere, “zoriak” ekonomiarekin, lan baldintzekin eta naturarekin lotutako kezkek ekarri ditu.

IKEA-Ametzondok guneak 8 milioi autoren poluzioa ekarriko du –%60 Hegoaldekoak–, Bizi! mugimendu altermundistak zabaldutako datuen arabera. A63 eta A64 autobideak saltokitik 30 metro eskasera izateak ez du egoera hobetzen lagunduko. Ingu-
rumenaren defentsan aritzen da Mugerreko Cadre de Vie elkarteak eta ikuspegi ekologikoa eztabaidaren erdian kokatu duen taldeetako bat izan da. “Osasun publikoaren aurkako

erasoa izango da IKEAren bueltan garraioak sortuko duena”, dio Martin Bouchet taldeko kideak. IKEA-Ametzondo ingurune natural baten gainean eraiki izana ere salatu dute Cadre de Vieko lagunek. “Urak erraz hartzen duen zonaldea da, eta merkataritza-gunearen impermeabilizazioak uholde arriskua duten inguruko auzoen egoera kaltetuko du. Zonalde naturalak hormigoitza akats larria da”, Boucheten ustez.

**Baiona-Angelu-Biarritz
triangeluak biztanle eta saltoki
kopuru arteko proportziorik
handiena du Frantziako Estatu
osoan**

Merkataritza-gune handiz josita dago Baiona-Angelu-Biarritz triangelua. Biztanle eta saltoki kopuru arteko proportziorik handiena du Frantziako Estatuan, milioi erdi biztanle dituzten Estrasburgo edo Rennes moduko hirien pare. Baionako Merkataritza eta Industria Ganberak salatu zuen egoera

hori 2012ko ikerketa batean, eta erakunde publikoei “aterabiderik ez duen eredu horri galga jartzeko” eskatu diete. Martin Bouchet ere kritiko agertu da erabakiarekin, “IKEA ezartzeko prozesuan herritarrek ezin izan dugu parte hartu, bulegoetan hartutako erabakia izan da”.

Merkataritza-guneen saturazioa ez du IKEA-Ametzondok soilik eragin, beste merkataritza-gune gehiago irekitzeko edo handitzeko prozesuan daude-eta. Landetako hegoaldean Ondres herrian Les Allées Shopping berria edo BAB2 merkataritza-gunearen handitzea, kasu. Merkataritza-gune erraldoien eraginez Baionako saltokien salmentak %25

Barakaldoko mugimendu sozialen protestak ugariak dira MegaParkeko lan baldintza kaskarrak salatzen. Bizi! mugimenduko kideek Baionako erdiguneko saltegien hil-otoitza irudikatu zuten 2013ko abenduan.





ARTEFACTMAGAZINE.COM

Barakaldoko IKEAn prekarietateak emakume gaztearen aurpegia du. Langileen %39k baino ez dute 900 eurotik gorako lansaria jasotzen hilero

jaitsiko dira, hirigintza eta merkataritza espezializatuaren aldeko Procos Federazioaren 2014ko ikerketa baten arabera. Nazioartean egindako azterketa askok berresten dute aurreikuspen ilun hori. David Neumark, Junfu Zhang eta Stephen Ciccarella unibertsitateko irakasleen ikerketaren arabera, multinazionalen sortzen den enplegu bakoitzak tokiko komertzio txiki eta ertainean 1,64 lanpostu suntsitzen ditu.

Multinazionalen etorreraren alde erabiltzen den argudio sendoena lanaren sorrera da. IKEAk 300 lanpostu agindu ditu— gehi beste 800 Ametzondon—, BAB2ren handitzeak 300 eta Les Allées Shopping-ek 1.500 iragarri ditu. Ametzondoko agintariek diote lanpostuen %80 inguruko jendearentzat izango direla, baina Cadre de Vie-ko kideak merketinarekin lotzen ditu datu horiek: “Kopuru horiek egiazkoak direnatz jakiteko ez dute inolako azterketa ekonomikorik aurkeztu. IKEAk agindu dituen 300 horietatik, momentuz, 155 baino ez dituzte publikoki eskaini. Beraz, zeinek sinetsi dezake Ametzondon 800 lanpostu sortuko dituztela?”. Bizi! kolektiboko kideak ere ezkor dira erantzun gabeko galderen aitzinean: “Zer lanpostu mota eta, batez ere, zein kontratu eta lan baldintza eskainiko dituzte?”.

Erantzunaren zantzuak 160 kilometrora aurki ditzakegu.

Barakaldoko ispilu prekariora

2004an krisi ekonomikoaren aurreko “garai zoriontsuen” testuinguruan lurreratu zen IKEA Barakaldon; zehatzago MegaPark saltoki erraldoian. Europako bosgarren merkataritza-gunerik handiena da: 440.000 metro koadro, horietatik 127.000 saltokientzat, eta urtean 18 milioi bisitari izaten ditu. Ikeaz gain, Leroy Merlin, ToysRus, Decathlon, El Corte Inglés eta Media Markt daude marka handien artean. Baionako kasuan bezala, zonalde berean ugaltu dira merkataritza-

gune handiak: MegaPark, MaxCenter, Max Ocio, Carrefour moduko saltokiak... Europan komertzio eta biztanle kopuru arteko ratorik handienetakoa du Barakaldo, Trapagan eta Sestaoko mugaldeko eremu horrek.

IKEA Barakaldoko azken hezegune naturalaren gainean eraiki zuten eta horrek herritarren eta talde ekologisten haserrea piztu zuen. Hezegunearen izen bera du IKEA alboko Zuatzu eta Arteagabeitia auzoetako elkarteak: Ibarreta. Elkarteko kide Txiki Castañosek herritarren nahiaren aurkako erabakia izan zela azpimarratu du. “Ibarreta-Zuloko hezegunearen inguruko lurren erabilerari buruzko inkesta egin zen 1990ean eta barakaldarrek parke publiko bat aukeratu zuten alde handiz. Ez ziguten inolako kasurik egin. Horren partez, naturgunearen suntsiketa, poluzioa eta prekarietatea ekarri zizkiguten”.

Politikarien hipokrisia salagarria iruditzen zaio Castañosi, alderdi guztiek komertzio txikiaren aldeko diskurtsoa izanik ere, multinazionalen etorrera sustatu baitute. “Multinazionalen oinarritutako eredu ekonomikoak eragin handia izan du eskualde osoan, baina okerreana da multinazionalen etorrerak ez duela etenik izan”. Mercadonak MegaParken laster irekitzeko asmoa duen saltokia gogoan, irmotasuna eskatzen dio Udalari. “Udalak berak onartzen du zonaldea merkataritza-gunez gainasetuta dagoela. 2012an Saturn saltokiak egin zuen bezala, noizbait IKEA joango balitz, egin dezatela, behingoz, merkataritza txikiaren aldeko apustua eta ez dezatela beste multinazionalik ezartzen laga”.

Baionan IKEA ezartzeko argudio nagusia Barakaldon erabilitako bera izan zen: lanpostu askoren sorrera. Hasieran agindutako 500 lanposturen kopurura inoiz heldu ez den arren, pertsona askok topatu du IKEAn bere eskulana saltzeko aukera. Zer nolako lana, baina? “IKEAk eskaini duen bakarria prekarietatea izan da”. Ziur mintzo da Gotzon Mardarats LAB sindikatuko ordezkaria. Hamaika urtez, sorreratik, egin du lan Barakaldoko IKEAn eta haren ustez, egoerak urtetik urtera okerre egin du. “Ez dugu hitzarmen kolektibo propiorik, Estatu mailakoa inposatzen digute, justifikaziorik gabeko dozenaka kaleratze agindu dituzte, baja hartzeko baldintzak murriztu dituzte, lanegunetako plusekin egin duten

Ikea eredua



WIKIMEDIA

IKEAk azken hamarkadan bikoiztu du bere tamaina. 6 milioi lagun dira IKEA Family-ko kide Frantziako Estatuan.

MULTINAZIONALAREN SORTZAIL-
LEAK Ingvar izena du (I), Kamprad
du abizena (K), Elmtaryd baserri-
koa da (E), eta Agunnaryd-en hazi
zen (A). Hortik jaio zen munduko
altzari eta dekorazio enpresarik eza-
gunena: IKEA.

1940ko hamarkadan sortu zuen
Ingvar Kampradek ia-ia ezerezetik
abiatuta –pospoloak merke erosi
eta auzokideei saltzen zizkien
batengana eta bestearengana bizi-
kletan joanez–. Gaur egun 35.000
milioi euro inguruko dirutzaren
jabe egin da. Multinazionalaren
etorkizuna bere hiru semeen esku
dago egun.

Enpresa suediarrek 3.300 milioi
euroko irabaziak izan zituen
2013an. Hazkundera dute jomuga:
2020 baino lehenago salmentak
bikoiztu nahi dituzte –50.000 milioi
euro–. Precio merkeak eskaintzea
da IKEAren karta nagusia, baina,
nola lortzen dute? Kampradek hala
esan zuen bere biografian: “Salneu-
rri baxu hauek beti daude justifika-
tuta, eta horrek eskaera itzelak
inposatzen dizkie gure kolabora-
tzaileei. Gure gastuak zorrotz
mugatu ezean, inoiz ezingo dugu
gure misioa bete”.

Kapitalismoaren arau guztiak
jarraitu dituzten enpresa orotan

bezala, “arrakastak” badu haren
alde iluna. Ikus ditzagun horietako
batzuk historian atzera luze jo gabe:

- 1994tik 1998ra bitartean, Pakis-
tan, India, Vietnam, Errumania
eta Filipinetako IKEAren horni-
tzaileetako lan esplotazioak
hedabideen arreta bereganatu
zuen. Horren haritik, jendea ez
esplotatzeko jokabide-kodea ida-
tzi zuen multinazionalak, nahiz
eta besteak beste, onartzen duen
12 urteko haurrek lan egitea, bal-
din eta euren herrialdeetan legez-
koa bada.
- 2007an *Le Monde Diplomatique*
hilabetekariak argitaraturiko iker-
keta batek India, Bulgaria eta
Vietnameko fabriketako egoera
salatu zuen: gutxienekoaren azpi-
ko soldatak, 12 eta 15 ordu bitar-
teko lanaldiak asteko zazpi egu-
netan, haurren erabilera,
mehatxuak eta sindikatuak anto-
latzeko trabak.
- 2008an ZDF telebista kate publi-
ko alemaniarrek argitara eman
zuen langileak espiatzeko bideo-
zaintza sistema ezarri zutela
euren dendetan, enpresa-batzor-
deari jakinarazi gabe.
- Olivier Bailly, Jean-Marc Caudron
eta Denis Lambertek *IKEAk
maite zaitu: desmuntatu beharreko ere-*

dua liburuak altzarietarako egurra
Errusia eta Txinako basoetan
kontrolik gabe lortzen dutela
salatu zuen, besteak beste.

- 2012an IKEAk barkamena eska-
tu zuen 1980ko hamarkadan
altzariak muntatzeko Alemania-
ko Errepublikak Demokratikoko
(AED) eta Kubako preso politi-
koak erabili zituela jakin zenean.
- 2011n Suediako telebistako kaze-
tari Elisabeth Åsbrink-en liburu
batek agerian utzi zuen Ingvar
Kamprad Suediako Langileen
Alderdi Nazionalsozialistako
kide izan zela Bigarren Mundu
Gerraren amaierara arte. Kam-
pradek publikoki barkamenak
eskatu zituen.
- 2013an Terapia izeneko publizi-
tate kanpainaren balio kontsu-
mistak direla-eta, Ekologistak
Martxan taldeak Premios Som-
bra sarietako finalista izendatu
zuen IKEA.
- Aurten Network Social Respon-
sability (NeSoVe) Gobernu-
z Kanpoko Erakundeak “IKEA-
ren hipokrisia” salatu zuen. “Jen-
daurrean enpresa jasangarria
dela dio, baina bere hornitzaileek
langileen eskubideak urratzeaz
gain, zergak ordaintzea saihesten
saiazen da”.



Eskuin-ezker: Barakaldoko alkate Tontxu Rodriguez, Juan José Ibarretxe lehendakaria, Espainiako Gobernuaren EAEko ordezkari Paulino Luesma eta Suediako enbaxadore Lars Grundberg, IKEAren inaugurazio egunean aulkiak muntatzen.

bezala, eta larriena, langileak zatitu nahi dituzte lanpostu finkoa eta aldi baterako kontratua dutenen arteko aldeak handituz. %30 aldi bateko langilea da eta kontratu motaren arabera, lan eta ordu kopuru bera eginda, 4.000 euroko aldea egon daiteke soldatan. *Dumping* soziala da, xantaia”.

Barakaldoko IKEAn prekarietateak emakume gaztearen aurpegia duela dio Mardarasek azken datu ofizialetan oinarrituta (2012koak). 424 langileen artean 130ek gutxieneko soldata interprofesionala (645,30 euroko 14 paga) baino gutxiago kobratzen dute, eta horietatik %74 emakumeak dira. Langileen %39k baino ez dute 900 eurotik gorako lansaria jasotzen hilero.

Lan baldintzen gogortzeak ez du loturarik izan IKEAren irabaziekin. “Gaizki deituta krisiak 2010-2011 inguruan jo zuen gogorren hemen. Ba, halere, 2011n IKEAk 11.926.000

euro irabazi zituen. Beste era batera esanda, 2008 eta 2014 artean, krisiak baldintzatutako 7 urtetan Barakaldoko IKEAk 57 milioiko irabaziak izan ditu, eta haren ibilbide osoan ez du inoiz galerarik izan”.

Prekarietatearen gurpil zoroan harrapatuta

Goizeko 6etan lantokira heldu, kontratua sinatu, lanean hasi, amaitu, kontratua zakarrontzira bota eta langabezira hurrengo goizera arte. Egutero kontratu berri bat eginez eta hilean 900 euroren truke, urtebete eman zuen emakume gazte batek Barakaldoko Decathlonen. Bazterketa sozialaren aurkako Berriotxoak taldeko kide Juan Carlos Becerrak, MegaParkeko lan motari buruz galdetuta, jarritako egiazko adibidea da. Baina galdera zera da; emakume horrek, gutako askok bezala, kamisetak Zaran, telebista Media Markten, tomateak Mercado-nan, armairuak IKEAn eta kirol-oinetakoak Decathlonen erosten dituela jakingo bagenu, inor harrituko al litzateke? Multinazionalek eskaintzen duten lana herritar askok prekaritatearekin eta esplotazioarekin lotzen badu ere, erosketak horrelako saltokietan egiteari uzten al diogu? Edozein asteburutan merkataritza-gune handi batera hurbiltzea besterik ez dago lowcost ereduaren gure bizitzan zeinen txertatuta dagoen jabetzeko.

Nielsen aholkularitza enpresak 2014an egindako ikerketaren arabera, erosketak egiteko orduan herritarren %90ak lehenesten duen baldintza prezioa da, eta %65ak bigarren aldagai gisa promozioak hobesten ditu. Produktuaren kalitatea atzetik dator, eta enpresako langileen baldintzak, naturarekiko errespetua



Moyua
hileta zerbitzuak

Zure momentu zailetarako

Otadui Gotzaina kalea, 27 · 20560 Oñati (Gipuzkoa)

☎ 943 783 447 / 617 442 466

mmoyua@telefonica.net · www.tanatorio-gipuzcoa.com

edota irabazien erabilera soziala moduko kez-
kak ez dira zerrendan agertu ere egiten. “Ni ez
naiz tontoa” ereduak harrapatuta gauzкала
dirudi, baina lowcost produktuen bitartez low-
cost bizimodua eskaintzen digun begizta mal-
tzurretik ateratzerik ba al da?

Alternatibak sortzeko beharra

Bizi kolektiboak apirilean argitaraturako
10.000 enplegu klimatiko Ipar Euskal Herrian
txostenean, Jose Ramon Becerra ingeniari eta
militante ekologistak hala dio:
“Mundu mailako krisi ekono-
miko, sozial eta politikoaren
aitzinean, herriak behartuak
dira kohesio soziala atxikiko
duten tokiko eta eskualdeko
estrategiak sortzera”. Logika
antzekoa konpartitzen dute
kontsumismoari alternatibak
sortzeko erronkari heldu di-
oten egungo mugimendu askok.

Bizi! mugimenduko kideen
aldarri honek irudikatzen du
ildo partekatua: “IKEAren
eredu hiperkontsumista eta finantza mundiali-
zatuari lotuta ez dugu bizi nahi. Gutako bako-
itzaren eroste edo kontsumo ekintza bozka bat
da”. Botere faktikoek herritar baino kontsumi-
tzaile gisa ikusten gaituzten garai hauetan, egu-
neroko gure kontsumo hautuei zentzu politi-
koa ematea azpimarratzen dute. Hau da,
ezkerrek sarri alboratu duten erantzukizun
pertsonalari heldu eta arazoaren muinean
dagoen gure bizimodu eredu aldatzera ekitea
proposatzen dute mugimendu askok. Inoren
eta ezeren zain egon gabe, gaurko kontsumo
ohitura “txarrak” desobedituz, gaurdanik
“ondo” bizitzea helburu.

Feminismoak ezagun egin duen “pertso-
nala politikoa da” ideian sakonduz –egun
multinazionalen eredu ordezkatzeko formu-
la magikorik ez dagoela jakitun– kapitalismo-
ak aurretik prefabrikatutako erantzun erosoe-

tara ez jotzea iradokitzen dute, eguneroko
gure kontsumo ohiturez hausnartzeko gonbi-
tarekin batera: egiatan behar al dut erosi nahi
dudan hori? Hala bada, birziklatzearen bitar-
tez lor al dezaket? Bestela, tokiko edo gertu-
ko saltokietan lor al dezaket? Produktuak
niregana heltzeko izan duen prozesuaz zer
edo zer ba al dakit? “Galderak zabaltzen du
bidea” leloari jarraiki, erantzunak baino gal-
derarekin batera datorren jakiekuntza eta
ardura ariketari lehentasuna ematen diote.

**Egiatan behar al dut erosi nahi
dudan hori? Hala bada,
birziklatzearen bitartez lor al
dezaket? Bestela, tokiko edo
gertuko saltokietan lor al
dezaket? Produktuak niregana
heltzeko izan duen prozesuaz
zer edo zer ba al dakit?**

Logika horri tiraka, “brikolaje
soziala” moduko proposamenak
sortu dira. Zaharkitzapen pro-
gramatuaren biktimak izan diren
altzari eta etxeko tresna elektri-
koen birziklatzea eta berrerabil-
pena sustatzeko ekimen kolekti-
boak dira. “Ados, hori guztia
oso polita da, baina hurrengo
asteen non erosiko dut nire gela-
rako armairua prezio antzeko-
an?” esango dizu lagun ernega-
tuak, izen eta abizendun denda
eske. Eta kopeta belztuko zaizu,

diruaren logikaren itsasoan esplotazioa eta
prekariatatea bazka dituzten marrazoak beti
garaile izanen direla jakitun. Horregatik, hain
zuzen, teoriatik praktikarako saltoa –sarri
amildegia dirudiena– emateko pedagogia gara-
tzea da gizarte mugimenduek aurrean duten
erronka nagusietakoa.

Ipar Euskal Herrian, IKEA eta inguruko
zenbait merkataritza-gune handien eraikun-
tza saihesteko beranduegi da, baina Bizi!ko
kideen iritziz, saltegi txikien akabera ez dago
idatzita; gure ohiturak aldatu eta tokiko kon-
sumoa lehenetsiz gero. “Ziur gaude hori
guzia nahi dugula ikusi desagertzen? Hauta
dezagun bizitzeko nahi dugun mundua”.
Herritarren erantzuna batekoa zein bestekoa
izan, eguneroko gure hautu txikiak gidatuko
dituen logikaren arabera izango da geure
mundua, Barakaldon zein Baionan. ■

[f]arina

Urbina kalea, 5 · (Molinuevo Parkea) · Vitoria-Gasteiz ARABA
☎ 945 06 95 81 · info@farinarestante.com

**Etxekoa,
ekologikoa...**



«Genozidioa pairatzen jarraitzen dugu, baina ez zaio izen hori ematen»

Genozidioa nazio bat desagerraraztea beste baten barruan diluitzeko dela dio Xabier Irujok. Bera bost belaunalditan erbestea ezagutu duen familia abertzaleko kidea da, eta Genozidioa eta Bake ikerketen irakaslea Nevadako Unibertsitatean, Renon.

| REYES ILINTXETA |

Argazkiak: Dani Blanco

Zer da erbestea zuretzat?

Etxea da. Gure familian erbesteratutako bosgarren gizaldiko kidea naiz. Herenaitona, Manuel Irujo Apeztegia tafallarra, 1838an diputatu karlista zelarik, atxilotzen saiatu ziren. Suitzara ihes egin zuen eta bueltan Lizarrara jo zuen. Han jaio zen Daniel Irujo, eta Aniana Ollorekin ezkondu zen. Haiek eta Danielen ama erbesteratuta, Iparraldera ihes egin zuten. 1936an, ondasun guztiak bahituta, familiako batzuk espetxean eta besteak fusilatu zituztela, 70 urte zituela Aniana Ollok berriro alde egin behar izan zuen, oraingo honetan Amerikara, seme-alabekin eta bilobekin. Gure gurasoak erbestean jaioak dira: aita Eusko Jaurlaritzak osatutako Bidarteko La Roseraie ospitalean sortu zen. Alemanek Iparraldea hartu ondoren, sei soldadu aleman etxean izatera behartu zuten familia. Amatziren esanetan, kasko aleman bat izan zen aitaren lehen sehaska. Venezuelara jo zuten Eusebio Irujo eta Pilar Elizalde aitona-amonek. Ametzagatarrek ere, erbestea ezagutu zuten. Ama Buenos Airesen jaio eta Uruguain eta Venezuelan bizi izan da. Aberri Eguneko antolatzaile izateagatik, 1967an poliziak aita atxilotu zuen Iruñean. Torturatu zuten eta erbesteratu. Venezuelatik 1973an etorri ginen denok Lizarrara bizitzera eta han geundela polizia etxean sartu eta atxilotuta eramane zuten aita, gu guztien aurrean. Zazpi urte nituen. Nik ez nuen ezer ulertzen. Venezuelan dena zen ederra eta koloretsua eta hemen, aldiz, hotza, grisa eta etsaiez bete. Bi

urtez egon zen Iparraldean eta gu maiz joaten ginen ikustera. Gordini bat genuen eta eserlekuaren azpian zegoen kaxoi moduko batean ezkutaturik eramaten genuen aita Lizarrara, eta egun berean berriz Hendaia. Ama gidatzen, eta gu hiru anaiok, atzean aitarren gainean eserita.

Azken hamar urteotan Estatu Batuetan bizi naiz. Gure seme-alabak, sei gizalditan erbesteratuak izan ez diren bakarrak, emigranteak dira orain.

Zergatik hautatu zenituen genozidio ikerketak?

Familiaren historiarengatik. Gure familiak eta beste hainbeste euskal familiek pairatu dituzten hilketak eta erbesteak genozidio fisiko kanpaina bateko atalak dira. *Euskal erbeste politi-*

NORTASUN AGIRIA

Xabier Irujo Ametzaga. Caracasen jaioa, 1967ko urtarrilaren 29an. Erbestean jaiotako Pello Irujo politikari abertzalearen eta Arantzazu Ametzaga idazlearen lau semeetako nagusia. Manuel Irujo, gerra garaian eta erbestean EAJko diputatu eta ministro izandakoa, haren aitaren osaba izan zen. 6 urte zituela, familia Nafarroara itzuli zen. Historia eta Filosofia Politikoan doktorea. San Fermin ikastolako irakasle, duela hamar urte Amerikako Estatu Batuetara, Boiserara, joan zen Euskal Ikerketarako Programa buru. Handik gutxira Nevadako Unibertsitatara joan zen, Renora. Euskal Ikerketa Zentroko zuzendarietako bat da 2011tik. Reno, Uruguai eta Gernikako hiru argitaletxetako editorea da. Bost seme-alabaren aita.





koa Ameriketara izan zen nire lehen tesiaren gaia. Herrialde demokratikoetan ematen ez den zigorra da erbestea. Nazioarteko legeria humanitarioen arabera, ez da legekoa. 1936tik 1939ra 150.000 lagun inguru erbesteratu zituzten herri honetan. Bestalde, ekonomian ezarri zen autarkiaren eraginez, jende askok alde egin behar izan zuen. Immigrantetzat hartu ziren, baina egiatan diktadurak sortutako miseria ekonomikoaren eraginez erbesteratuak dira.

Politikoki eta kulturalki gauza oso garrantzitsuak egin zituzten atzerrian. Adibidez, 1936 eta 1950 artean euskaraz argitaratu ziren ia liburu guztiak Amerikan plazaratu ziren, Ekin argitaletxearen eskutik bereziki. Gure aitona Bingen Ametzagak 50eko hamarkadan itzulitako Juan Ramon Jimenezen *Platero eta biok* eta Shakespearearen *Hamlet* lan horren emaitza dira.

Zein da genozidioaren helburua?

Genozidioa da nazio bat desagerraraztea beste baten barruan diluitzeko: asimilazioa.

Horretarako hainbat estrategia erabil daitezke eta, normalean, genozidio kanpaina batean guztiak erabiltzen dira batera. Giza taldeko kideen portzentaje bat hiltzea, desagerraraztea, espetxeratzea edo deserriratzea genozidio fisikoa da. Bestalde, giza talde horren zati bati baliabideak kentzea beste batzuei emateko, genozidio ekonomikoa da. Lokarri sozialak erraustea eta kode zibil berria ezartzea, genozidio soziala dugu. Erlijioa debekatzea edo inposatzea, alderdi politikoak eta identitatea defendatzen duten elkarre eta taldeak debekatzea, komunikabide batzuk diru publikoz laguntzea eta besteak ez, edo 27 urtez lizentziarik ez ematea, Euskarria Irratiari egin dioten bezala, horiek denak estrategia genozidak dira. Inportanteena hau da: Politika horiek guztiak pakete berean datoz, eta logika bati jarraiki planifikatu, gorpuztu, ezarri eta kudeatzen dira, hemen eta Tibeten. Izua administratuz lortzen da, urtetako edo mendetako prozesuan.

Emaitzak ikusi eta legeak egokitzen doaz, estrategia eraginkorrako egiteko. Ondorioak birrintzaileak dira.

Euskararen aurkako erasoak ere genozidioaren atal bat dira?

Bai. Azken 226 urteetan Espainiako eta Frantziako Estatuetan euskararen aurka egin den legedia aztertu dut IVAP-HAEErekin aurre argitaratutako liburuan. Esan daiteke eraso guztiak hiru multzotan sailkatu daitezkeela: hezkuntza, estatu administrazioa eta justizia.

Genozidio kulturala beste esparru askotan ere ematen da: txistua jotzea debekatuta edo kontrolatuta egon zen, kalejirak egiteko baimen bereziak eskatu behar ziren, izen euskaldunak galarazita zeuden, euskal ortografia, toponimia... Euskal izaera erakusten zuen edozein adierazpen debekatu edo mugatzen zen. Herriatik herrira, diktaduratik diktadurara pasa diren maileguak dira legeon arteko asko: goizeko zazpiaz geroztik euskarazko mezara joatea debekatu zen. Mussolinik Tirolen ezarritako legearen kopia dugu.

Genozidioa pairatzen jarraitzen dugu, baina ez zaio izen hori ematen, eta ofizialki ezezten da. Hau da genozidio ikasketetako lehenengo ikasgaia: ez sinetsi ezer, ez sinetsi inori, irakurri eta ikertu lehen eskuko iturriak. Claud Cockburn kazetariak dioen bezala, “ez sinetsi ezer ofizialki ezeztua izan arte”.

Zer egin daiteke horri bukaera emateko?

Lehenengo gauza hauteskundeak irabaztea, Nafarroan lortu berri den bezala, eta gero legedia aldatu. Bide zuzenena, Armeniako edo Ukrainako adibideei jarraiki, independentzia lortzea da, alegia, gure geroa gure esku izatea.

Nola hartu duzu aldaketa politikoa Nafarroan?

Ituna kristalezkoa da, eta ea luzaro irauten duen. 200 urtetan lehen aldia da Hegoaldean abertzaleok lau herrialdeetan eta lau hiriburuetan agintean gaudena, eta agintari euskaldunekin. Alde horretatik oso pozik nago. Uste dut itxaropentsu izan behar dugula. Gauzak poliki-poliki aldatzen ari dira.

Arkitektura juridiko berri horretan zer da premiazkoena?

Nafarroako Euskararen Legearen zuzenketak izan beharko luke lehentasuna. Nafar guztxi aukera berdina eman behar zaie gaztelaniaz edo euskaraz ikasteko.

Hemengo errepresioa genozidioa izan dela inoiz onartuko al da?

Ukapena da edozein genozidio kanpainaren azken urratsa. Toki gutxitan onartu da ofizialki gobernuak genozidioa eragin duela: Zeelanda Berria, Australian, Estatu Batuetan... eta kasu horietan ere oso neurri apalak hartu dira.

1948/51ko Genozidio konbentzioa izugarri mugatua jaio zen eta mundu zabalean gertatu diren izugarrikeriak gizateriaren aurkako krimen edo gerra krimenez hartzea errazago izan da orain arte. Izan ere, biktimak 100

Genozidio kulturalaren emaitzak

Henri Grégoire (1750-1831), frantziar iraultzaileak zioen bezala, garai hartan estatu berriaren baitan frantses hiztunak %11 ziren. Egun, aldiz, ia %100 dira. Genozidio kulturalaren fruitua eta mamia da.

milioitik gora izan dira XX. mendean, eta soilik 30 pertsona inguru kondenatu dituzte genozidioagatik. Txinan, Estatu Batuetan edo hemen, ez da oraingoz halakorik lortuko, estatuak boteretsuegiak direlako.

Duela bi urte plazaratu zenuen *El Gernika de Richthofen*, hamar urteko lana, 12.000 agiri 40 artxibategitakoak. Zein da ekarpen nagusia?

Genozidio guztietan esaten diren zazpi gezur nagusiak hemen ere esan zirela, Gernikaren inguruan. Lehen gezurra dena ukatzea izan zen. Dena purgatu zuten. Franco hil ostean hasi ziren zenbaitzuk egin izana onartzen, baina ondorioak ikaragarri leunduz: erreduktionismoa dugu hori. 200 bat hildako izan zirela onartu zuten eta herrian zeuden 10.000 pertsonetatik 2.000 inguru akabatu zituztela uste dut nik. Esan zuten hondamendia ez zela hainbesterako izan, baina eraikinen %85,2 erabat birrindu zituzten, eta gainerakoa larri kaltetu. %1 geratu zen zutik: arma fabrikak eta frankisten etxebizitzak herriaren sarreran, Mundakarako bidean.

Lezio bat izan zen?

Gerra esperimendua, baita Goerinek Hitlerri egindako urtebetetze oparia ere. Bonbatze sistema hura gerora Varsovian, Rotterdamen



BULTZA KAZETARITZA INDEPENDENTEA EGIN HARPIDETZA

📞 943 371 545 • harpidetza@argia.eus • www.argia.eus/harpidetza

 **argia**



eta Stalingradon praktikan jarri zuten. Pilotu eta agintari berberak izan ziren guztietan. Izu bonbardaketaren helburua da herri edo hiri bat oso bortizki kolpatzea etsaiaren morala errausteko eta errendizioa lortzeko. Lehenago Eibarren, Durangon, Otxandion, Elorri... egin zutenak logika bera zuen.

Bonbaketen atlasa egiten ari naiz eta orain arte 600 bat bonbaketa zenbatu ditut urte hartan, Bizkaian nagusiki.

Liverpoolen izan zara udaberrian Manuel Irujo katedra berrian, zer moduz?

Izugarri aberasgarria izan da. Gonbidatu ninduten eta hiru hilabetez izan naiz han gauza pila egiten: zazpi hitzaldi eman ditugu, lau konferentzia, Ibarretxe eta zenbait ikertzaile gonbidatu genituen, liburu batzuk bidean jarri ditugu...

Renoko Euskal Ikerguneko politika sailean argitara emango dugu Ibarretxeren tesia. Adibide praktikoa da tesia: agente genozidak giza taldea deuseztatu nahi duenean taldearen lotura kulturalak moztea da lehenengo eginbeharra. Ikuspegi positibotik heldu dio Ibarretxek tesiari. Lehendakari bezala, euskal gizartea krisaldi ekonomiko, sozial, politiko eta kulturaletik ateratzeko lehen pausoa kulturaren eta gizarte gaietan inbertsioak egitea zela defendatu zuen eta emaitzak oso onak izan dira.

Boiseko Jaialdian aurkeztuko du Ibarretxek liburua, lagun hurkoa nuen eta herri honen independentziaren alde hainbeste egin zuen Pete Cenarrusaren herrian.

1615 Baskavígin, euskal baleazaleen hilketa liburua aurkeztu berri duzu Donostian Etxepare Institutuak antolatutako kongresuan.

Identitatea puskatu

Genozidioaren ardatza identitatea puskatzea da, horregatik gizarte bat berregituratzen saiatzerakoan hain da garrantzitsua sare kulturala berregitea eta identitate kolektiboa lantzea. Hor gakoa independentzia da.

Orain dela 400 urte, 1615ean, 86 baleazale gipuzkoar joan ziren Islandiara. Kanpaina bikaina egin eta hamaika balea chizatu zituzten, baina azken gauean enbata izan eta dena galdu zuten. Hiru hil ziren. Danimarkako erregeak ematen zituen arrantzarako baime-nak, baina horiek zituztenak bertako gobernadoreak saldutako lizentzia faltsuak ziren. Gobernadoreak ikusi zuenean arriskutsua zela euskaldun horiek han egotea, egia esaten ahal zutelako, harrapatu eta hiltzeko agindua eman zuen. Oso modu latz eta krudean hil zituzten 32, eta besteek ihes egin eta etxera itzultzea lortu zuten. Jón Guðmundsson-ek hilketan parte hartu zuten batzuk elkarrizketatu zituen eta hark idatzitako txostena argitaratu dugu euskaraz eta beste hiru hizkuntzatan.

Sarraskiaren ondoren, oso harreman komertzial eta pertsonal politik sortu ziren Islandiarekin, eta euskara ere ikasi zuten batzuek. XVII. mendean, hainbat euskara-islandiera hiztegitxo idatzi zituzten euskaraz ikasten laguntzeko. Esan daiteke horiek ditugula diasporako lehen ikastolak.

Ikasle distiratsua izan zara beti eta hezkuntza sistemarekin oso kritikoa, zergatik?

Egungo hezkuntza sistemak 1794an Frantzia osatu zen hezkuntza sistema publiko genozida du oinarri. Bertrand de Barèrek 1794an hezkuntza sistema publikoa gorpuztu zuenean kulturak akabatzeke sistema eratu zuen “*la terreur linguistique*” delako testuinguruan. Horrexegatik, sorreran sistema militarra zen, soldadu faktoria alegia, eta hala izaten jarraitzen du neurri batean. Egun mantentzen den gela barruko ordena, lerroetan eserita egotea, uniformeak, sexu banaketa, ikasgaiak eta curriculumak, zigorrak eta azterketa zorrotzak, irakasle-epailearen irudia, ikasteko ereduak eta estrategiak, buruz ikastekoarenak eta ortografiaren garrantzia, isiltasunaren premia... dena dago logika militarrean oinarrituta, eta dena, ondorioz, logika naturalaren kontrakoa da. 15 urteko gaztea zazpi orduz aulki batean eserita edukitzea erokeria da. Sozializazioa ari gara zigortzen.

15 urte nituela ikaragarri aspertzen nintzen klaseetan. Kaiola zen/da niretzat eskola. Orduan amak esan zidan: “Ez zaitez bihar klasea joan. Hemendik aurrera zuk erabaki noiz joan eta noiz ez”. Otsailak 2 zen, hori da ordu-tik nire urtebetetzea. Gainditzen nuen bitartean nahi zuena egiteko agindu zidan amak.

Hainbat mamu ere uxatu behar dugu: ingelesa 18 urterekin ikasi nuen nik eta ez dut sekula santan arazorik izan munduko punta guztietako unibertsitateetan ingelesez klaseak emateko. ■

XABIER ERRO

«Everesten ikurrina jartzeagatik espedizio-buruak komisariara deitu zituzten, atera kontuak!»

1980an iritsi zen Everest gailurrera lehen euskal espedizioa. 35. urteurrena bete den honetan, abentura hartan parte hartu eta aurretik prestaketa lanez arduratu zen Xabier Erro mendizalearekin (Lesaka, 1946) aritu gara solasean. Orduko kontuez eta mendizaletasunaz mintzatu zaigu.

| GORKA AZKARATE |

Nola gogoratzen dituzu mendian emandako lehen urratsak?


Lesakan jaio nintzen, mendi artean, eta gogoa dut txikitan amarekin mendira nola joaten nintzen, Lesakatik Larrunera oinez, esaterako. Geroago, oilagorren garaian aitari laguntzen nion mendira asteburutan. Eta ikasle sasoian, irteerak egiten hasi nintzen lagunekin. Luis Maria Balde mendizalea ezagutu nuen lanean hasteaz batera, eta hark erakutsi zidan eskaladako oinarritzko teknika. Pirinioetan, Vignemaleko Pique Longue iparraldeko aurpegia elkarrekin eskalatu genuen, besteak beste.

Gerora ezagun egingo zen Xabier Erro mendizalearen hastapenak ziren.

Bai. Lan kontuengatik Mexikora joan nintzen garai hartan, eta Amerikan nengoela probetuz oporretan bertako mendi altu esanguratsuenak igotzeari ekin nion: Aconcagua, Chinborazo, Huascaran... 1976an ikurrina jarri genuen Aconcaguako gailurrean eta gertakizun hark oihartzuna izan zuen Euskal Herriko orduko hedabideetan.

Everesteko gailurrera igotzeko irrika bizia zen orduan Euskal Herrian...

1974an Everest igotzeko lehenengo euskal saiakera egin zen, *Tximist* espedizio sonatua tarteko. Cegasa enpresa izan zen babesle nagusia, hortik espedizioaren izena. Ni orduan Mexikon nengoen eta espedizio-kideekin harremana banuen, noski. Ez zuten





“35 urte pasa dira eta gizartea aldatu den modu berean aldatu da mendizaletasuna ere. Teknologia, baliabideak, babesleak... Dena dira errekorrak eta horrelakoak. Gure espedizioaren helburua mendia egitea zen, baina etxean hasi eta buka”, dio Errok. Irudian, Aconcaguara egindako ibilaldi batean.

gailurrera iristerik lortu, eta berehala bigarren saiakera egin nahi izan zen. Garai hartan, baina, ez zen gaur egun bezain erraza Everestera igo ahal izateko baimenak lortzea, eta urte batzuk itxaron behar izan genituen.

1980ra arte.

Hori da. Bigarren hartan ere Cegasa enpresa atzean egon arren, Bilboko Udal Aurrezki Kutxak 8 milioi pezeta eman zituen. Eusko Jaurlaritzak eta Euskal Herriko udal askok diruz lagundu zuten espedizioa. Oraindik ere idatzita daukat koaderno batean udal bakoitzak eman zuen diru kopurua. Nafarroako Erriberako udal askok ez ezik, Ipar Euskal Herriko udal askok ere lagundu zuten diruz. Horrek eman zion benetako naziotasun izaera-

“Nafarroako Erriberako udal askok ez ezik, Ipar Euskal Herriko udal askok ere diruz lagundu zuten espedizioa. Horrek eman zion benetako naziotasun izaera espedizioari. Aldaketa garaia zen eta sekulako ilusioa genuen”

ra espedizioari. Aldaketa garaia zen eta sekulako ilusioa genuen alde horretatik ere.

Hortaz, garaipen politikoa ere izan zen nola-bait, zuen balentria hura.

Zalantzarik gabe. Guk baino lehenago oso nazio gutxi zeukaten Everest igota, eta arrakasta itzela izan zen hura Euskal Herriarentzat. Oihartzun handia izan zuen albisteak, eta itzuli ginenean jasotako omenaldi eta gainerakoak ildo horretatik joan ziren. Gailurrean ikurrina jarri genuela-eta, Lorente eta Rosen espedizio-buruak komisariara deklaratzera deituak izan ziren behin etxera itzuli ostean, hortik atera kontuak!

Espedizioaren nondik norakoak aipatzen hasita, gainerako espedizio-kideak hara iritsi aurretik lan handia egitea egokitu zitzaizun.

Lan munduan esperientzia neukan eta dezente bidaiatua nintzen nire adinerako. Espedizioa beste guztiak iritsi baino bi hilabete lehenago joan ginen hara Kike de Pablo eta biok. Nepalen ez zegoen ezer, eta guztia hemendik eraman behar izan genuen. 12.000 kilo eraman genituen Bombayra hegazkinez eta handik Nepalera kamioiez, tramite guztiak egin eta gero. Kikek lagundu zidan lan honetan, nahiz eta lagundu baino

“Gailurra egiteko aukerari uko egin eta jaisten laguntzea bilakatu zen lehentasun. Segurtasuna eta elkartasuna ziren gure espedizioaren ardatzak, beste ezeren gainetik”

tarteka lan gehiago ere eman zidan, ez baitzekien ingelesez! Kar, kar, kar. Beheko zein alturako sherpak aukeratu genituen eta mar txoan besteak iritsi zirenerako lan zikina egina genuen eta kasik aklimatatuta geunden gu biok...

Lehenengo aldia zen zuretzat Himalaian.

Hala da. Pirinioak etxea bezala dira guretzat, gero Alpeak 1.000 metro garaia goak dira eta errespetu handia zor zaie, Andetan 6.000koak daude eta koska bat igotzen da zailtasuna... baina Himalaiara joan eta izotzez estalitako erraldoi haiek ikustea zirrargarria izan zen. 8.000koak bakarrik hartzen dira kontuan sarritan, baina altueraz apalagoak diren mendi asko eta asko daude Himalaian, zailak bezain interesgarriak.

Behin Everesteko Base Camp delakoan, helburu bakarra: gailurra.

Bidea ekipatzeari ekin genion, eta tartean inguruko beste zenbait mendi apalago igota aklimatazio prozesua egin genuen. Ondoren, talde txikitik banatu eta saiakerak egiteari ekin genion. Orduan ez zegoen eguraldiaren iragarpenak zehatzegi jakiterik, eta zailagoa zen guztia. Penba Tsering sherparen laguna egin nintzen, berak gailurrera igo nahi zuen bere curriculum osatzeko eta elkarrekin igoko ginela esaten zidan. Lehenengo saiakera egin genuen, baina beste sherpa batek edema izan zuenean beherako bidea hartu genuen. Handik egun batzuetara, Martin Zabaletak gailurrera iristea lortu zuen egunean, Felipe Uriarte eta biok 7.500 metrora geunden, baina gailurra egiteko aukerari uko egin eta euren jaisten laguntzea bilakatu zen lehentasun.

Taldea zegoen, beraz, norbanakoaren gainetik. Zailtasunik gabe. Gailurra Martinek bakarrik zapaldu zuen arren, guztion garaipena izan zen hura. Espedizioaren helburua gailurra lortzea zen eta lortu genuen. Segurtasuna eta elkartasuna ziren gure espedizioaren ardatzak, beste ezeren gainetik. Taldeko kide batek gailurra jo zuenez, hantxe bukatu zen espedizioa.

**VITORIA
GASTEIZ**
green capital

Gasteizen euskarazko
hauek ez galdu



Jai atarikoak

Abuztuak 2

Igandeak Jai programa

Itsasoaren mapa

Aihotz plaza. 17:00

Ane eta Piratak parrandan

Aihotz plaza. 19:00

Astokillo

Kalez kaleko ikuskizuna. 18:30

Abuztuak 3

Matxeteko Sagardotegia

Dantza-plaza, berbapikea

eta sagardotegiko pintxo bereziak

Aihotz plaza. 19:00

Jaiak

• **UMEENTZAKO IKUSKIZUNAK**

Peñafloidako Kondearen plaza. 12:30

Hor Konpon Mari Anton. Abuztuak 6.

Sukaldean festa. Abuztuak 8

Burutik jota. Abuztuak 9.

Peñafloidako Kondearen plaza. 19:30

Maite DJ. Abuztuak 6.

Mar. Is. Kal. Dejai. Abuztuak 7

Falerina lorategia. 13:00

Rock- Eroak!

• **GAU JAIK**

Arka plaza. 00:00

Koxkor. Abuztuak 4

Drindots. Abuztuak 5

Honat. Abuztuak 7

Lisker. Abuztuak 8

• **KONTZERTUAK**

Foru plaza. 00:00

ETS eta Hesian. Abuztuak 6

Aihotz plaza. 00:00

Oreka TX + Kalakan. Abuztuak 5

Tadusak, "Bide Luzea Ternuarat". Abuztuak 6

Xaiko. Abuztuak 7

Juantxo Skalari & La Rude Band. Abuztuak 8

Txosnak

Tximeleta. Abuztuak 5. 01:00

Su Ta Gar. Abuztuak 6. 00:00

Etsaiak. Abuztuak 6. 02:00

Iheskide. Abuztuak 8. 00:00

Zea Mays. Abuztuak 9. 01:00

• **BERTSOAK**

Abuztuaren Setik 9ra

Aihotz plaza. 13:30

• **MUSIKA ETA DANTZA**

Abuztuaren 4tik 9ra

Aihotz plaza. 19:30

Kontzertuak, erromeria,

Larrain-dantza...

_Maite duzun hura, euskaraz!



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala



1980ko espedizioko kideak, atzean ikurrina eta "Nuklearrik ez" ikurra dituztela.

Urtero elkartzen zarete espedizio hartako kideak.

Takolo eta Gallardo izan ezik beste guztiak bizirik gaude oraindik, eta bai, urtero egiten dugu bilkura udaberri partean. Orduko kon-
tuak berritzeko aukera ezin hobea da.

Gaur egungo mendizaletasuna abiaduran eta arintasunean oinarritzen da, neurri batean.

35 urte pasa dira eta gizartea aldatu den modu berean aldatu da mendizaletasuna ere. Teknologia, baliabideak, babesleak... Dena dira errekorrak eta horrelakoak. Gure espedizioaren helburua mendia egitea zen, baina etxean hasi eta buka. Gaur egun marka egite-
ra bazoaz nekez izango duzu besteenganako elkartasuna. Everesten egoera lotsagarriak ikusi ditugu azken boladan, espedizio komertzialak tarteko. Neronek ere igoko nuke Everest gaur egun, ordaindu, lau sherpa hartu, bi aurretik eta bi atzetik, eta soka finkoa jarraituz goraino. Errespetua galdu zaio mendiari.

Mendizaleak ez al daude gaur egun, ordea, lehen baino prestatuago?

Baliteke, baina zalantzak dauzkatz. Gure garaian mendizaleek ibilbide natural bat jarraitzen zuten, inguruko mendietatik Pirinioetara, ondoren Alpeetara, Andeetara, eta azkenean aukera izanez gero Himalaia. Gaur egun mendizale askok tarteko etapak ahaztu eta saltoa azkarregi ematen ez ote duten... Espedizio hartan parte hartu genuen guztiok, Felipe izan ezik (mendi gidaria zen) bestelako lanetan jarduten ginen, hau da, ez ginen mendizale profesionalak. Hala ere, ibilbide natu-

Espedizio kideak

Errok espedizio-lagun izan zituen Ramón Arrue (Azpeitia, 1948), Kike De Pablo (Zamora, 1952), Ricardo Gallardo (Donostia, 1940), Javier Garaioa (Iruñea, 1950), Emilio Hernando (Bilbo, 1953), Luis Mari Saenz Olazagoitia "Petxu" (Gasteiz, 1943), Joxe Urbietta "Takolo" (Azpeitia, 1941), Felipe Uriarte (Pasai Donibane, 1944), Juan Ignacio Lorente espedizio-burua (Gasteiz, 1939), Angel Vallejo Rosen idazkaria (Biarritz, 1942) eta tontorra zapaldu zuen Martin Zabaleta (Hernani, 1949).

ral hori egindakoak ginen eta teknikoki oso ondo prestatuak.

Egindako irteera guztien artean, zailtasun teknikoagatik bereziki gogoratzen duzunik izango duzu...

1979an Fitz Roy eskalatzen saiatu ginen Martin Zabaleta eta biok. Ekaitzagatik ez genuen lortu. Mexikon 6. mailako eskalada bideak ireki genituen, Las Ventanas parajea. Aconcaguan ekialdeko ertza egindakoa naiz, baita integrala ere, hego eta ipar gailurrak lotuz. Pirinioetan, Diablo-Costerillou ertza (Balaitous mendian) lau aldiz egin dut, Salenques-Tempestades ertza (Aneton)... Oroitzapen asko dauzkat.

Zer nolako lotura daukazu gaur egun mendiarekin?

60 urte inguruko jendez osaturiko taldetxo baten ardura daukat, eta urtero egiten dugu irteeraren bat Argentinara, Perura, Nepalera... Mendiak eta Herriak taldean ere lagun-
du izan dut, baina gaur egun ez dut gogorik izaten ezagutzen ez dudan jendearekin mendira joateko. Lan hori egiteko gidari gazteak daude eta lekukoa eman behar zaie.

Mendian jazotako bitxikeria bat baino gehiago izango duzu...

Asko dauzkat, bai. Aconcaguara bidean txakur bat atzetik etorri zitzaigun behin eta gurekin egin zuen lo. Hankak berotzen zizkigun, kar, kar, kar. Gailurrera iritsi zen ez kranpoi ez beste ezeren beharrik gabe. Jaitsi ginenean, bertako militarrei eman genien txakurra, eta maskotatzat hartu zuten, Beltxa izena jarrita. Handik urte batzuetara, beste txakur batekin topo egin genuen Aconcaguan, hura ere arazorik gabe igo eta jaitsi zen. Eta hango mandazain batek esan zidan: "Igoko ez da ba, Aconcaguara, Beltxaren semea da-eta!". Beltxaren istorioa kontatu nionean, sinestea kostatu zitzaion mandazainari... ■

errearoaren erditsutik hunat, inharrosteko berriak izan ditugula, nork uka ?

ADITU GINUEN ALEMANEK, URRERIK HANBAT
GEHIAGO BANKOETAN EZ UKANEZ, SEI HILABETEKO
EPEA GALDEGITEZ ZUTELA HARTZEDUN GUZIER,
ONDAR MAILEGUEN INTERESEN ORDAINTZEKO,
BAZTER GUZTETARIK BILDU DIRUA, ALEMANAK XAHUTU
IZAN DU, OBRA ETA ARMAMENDU BERRIETAN ...

Koan Etxepare 1934

ezaguna zaigu
UREPELEKO
ARTZAINA, baina NORK IRAKURTZEN
DU ALDUDEKO
MEDIKUA?

KEPA ALTONAGA

udarako irakurgai zenbait:

ETXEPALE MIRIKUAREN LANAK Xarriton

ODOLAREN MINTZOA Xalbador



INIGO AZKONA

**Asier
Blas
Mendoza**



EHUKO
IRAKASLEA

Europar Batasun erreala edo IV. Reich-a

ALEMANIAK GIDATUTAKO Europar Batasunak (EB) ez zuela gustuko Syrizarren gobernu berria, bagenekien. Atenasi ez zizkiola gauzak erraz jarriko eta ahalaz Europako beste zenbait herrialdetan bulztatutako estatu kolpe leun bat emango zuela gobernu aldaketa inposatuz. EB saiatu da, Berlinek *korralitua* bortxatu du eta batasuneko bazkideen artean inoiz ikusi ez ditugun irainak eta mespretxuak egin zaizkio Syrizarren Gobernuari. Baina Alexis Tsipras bizirauteko gai izan da estrategia demokratikoa defentsa arma moduan erabiliz. Alemaniaren enbidoari hamar puxtarri gehiago jarri zizkion. Erreferenduma apustu ausarta izan zen, etxean gobernu indartu eta legitimatu, eta kanpoan, aldiz, haserre piztu eta joko arauak inposatzen dituztenengan mende gosea sortu zuen.

Greziar krisiak garbi utzi du zer den EB erreala. Ez dira garai onak federalistentzat, jakin bagenekien Europar Batasunaren demokrazia urria dela, baina federalismoa inoiz agendan egon bada orain ofizialki ezabatu da. Mundu guztiak daki lortutako akordioak zigor asko, eta elkartasun eta lankidetzak gutxi eskaintzen duela

Yanis Varoufakisek azaldu bezala, Eurotaldean Alemaniak hitz egiten duenean gainontzekoak isildu eta obeditu egiten dute. Berlinek bota zuen hordagoa, zurrumurruen arabera honelako zeozer: gure baldintza-zigorak onartu ezean, eurotik botako zaituztegu eta hamar izurriteen pareko baldintzak sortuko dizkizuegu. Tsipras izutu eta B planik izan gabe amore eman zuen erreferendumaren aurretiko baldintzak baino askoz gorragoak onartuz. Beste behin mundu multipolarren onurak ulertzen ez dituztenen aurpegian zaplaztekoa izan zen. Subiranotasunari eustea edo berreskuratzea errazagoa da boterea hainbat lekutan banatuta badago, horrela beraien arteko kontrol eta disuasio politikak subiranota-

sun esparru autonomoak sortu ditzake. Adibidez, Latinoamerikako ezkerreko esperientziek nekez izango zuketzen etorkizunik Txina edo Errusia existituko ez balira. Horregatik, zeharka bada ere, Errusiaren aurka egiten denean Mendebaldearen mesedetan, besteak beste, Bolivia, Ekua-dor eta Venezuelaren aurka egiten da.

Europari begiratuta, greziar krisiak garbi utzi du zer den EB erreala. Ez dira garai onak federalistentzat, jakin bagenekien Europar Batasunaren demokrazia urria dela, baina federalismoa inoiz agendan egon bada orain ofizialki ezabatu da. Mundu guztiak daki lortutako akordioak zigor asko, eta elkartasun eta lankidetzak gutxi eskaintzen duela. Greziaren egoera ekonomiko kaskarra ez da konponduko, okerragotu baino. Heleniar estatua asko pobretuko da, pribatizazio prozesu basati bat martxan jartzera derrigortu dute EBk kontrolatuta, horrela Mendebaldetik kanpoko (Txina, Errusia, Brasil...) kapitalen parte-hartzea gutxitu edo desagerraraziko dute. Hau da, Grezian subiranotasun gutxi geratzen da, baina era berean pribatizazioetarako ez da merkatu librearen araurik onartuko, eta herriari egingo zaion lapurreta merkatuko. José Mujicak, Uruguako presidente ohiak, azaldu bezala akordioa krudela eta kolonialista da.

1871ko alemaniar batasunaren ostean, alemaniar espansionismoak arrakasta izan zuen intelektual, industrial, militar eta politikari kontserbadoreen artean. Beranduago, 1915ean, Friedrich Naumann politikari liberalak *Mitteleuropa* kontzeptuari lotua Aduanetako Batasun proiektua landu zuen anglosaxoiekin lehiatzeko. Alemania Europako zentroa izango litzateke eta gainontzeko nazioak bere inguruan egongo lirateke subiranotasun ekonomikorik gabe. Ildo horretan, naziek kontinenteko esparru ekonomiko bat irudikatu zuten, non herrialde batzuek soberakinak sortu eta salduko lituzkete —Alemaniak zuzendua Banku zentral eta moneta bakarrarekin—, eta besteak periferia ekonomikoa izango lirateke lehen gaiak eta eskulana hornituz. Egungo errealitatearekin zerikusirik? ■

**Koldo Aldalur**

♦ KAZETARIA

Almitza

BERNARDO ATXAGAREN burutazioekin zerikusirik ez duen soinu-jolearen semea den aspaldiko lagun bat badut, eta grazia ikaragarria egiten dit duen ohitura batek: gustuko ardoari hitz egiten dio. “Nor dabil hor?”, galdetu ohi dio ardoari tragoxka jo aurretik, ikusten ez badu ere antzematen duelako zerbait bizirik eta sasoiko badagoela eskuetan duen kopa barruan.

Antzeko zerbait gertatu izan zait Almitza Sega Elkartekoen berri izaten dudanean. Hor daude, zarata handirik atera gabe, baina beti lanean, gure herriko usain goxoa zabaltzen Europa zaharrean zehar.

Orain hemeretzi urte hasi ziren hemen herri bat badela eta bertako batzuek segak astintzen badakitela aldarrikatzen gure mugaz harat. Harrezkero hamaika belarditan aritu ondoren, Finlandia, Suitza, Alemania, Hego Tirol, Eslovenia, Katalunia, Okzitania eta beste hainbat bazterretan badakite nortzuk garen, gure kulturak zer dioen eta gure segalaritzak zer nolako maila duen.

Abuztuaren 28tik 30era, Munategi baserria izan zen belardian, Loiolako Santutegiko atzealdean, Azpeitian, Europako Sega Txapelketa jokatu da. Eta gu beste herri bat izango gara hizkuntzen zelaian, gure ereserkia segapotoan dugula azalduko gara, gure koloreak bihotzetan, gure egiteko erak arretaz zorrozturik

Metodologiak harritzen nau gehien, gauzak egiteko erak, alegia. Ez naiz ni hasiko orain epaitzen zein bide den zuzena eta zein okerra gure helburuak lortzeko. Handikiak lehen ere gehiegi daude gurean, baina Almitzako hauen jarduna dut gustuko. Zarata gutxi eta lana beltz. Joan, ikusi, aztertu, hitz egin, adostu, ekarri, erakutsi, amore eman, errespetatu, onartu, abestu, amestu, eskatu eta lortu. Gure herri honetan sarri ordenan jartzeko gai ez garen aditzak dira. Askotan elkarren gainean pilotzen ditugunak. Haserretu, zatitu, etsi, beldurtu, egoskortsu eta abarrez aldatu ditugun aditz oinarritzakoak.

Eta sega kolpe bat hemen, beste bat han, ondorioak begi bistan ditugu. Abuztuaren 28tik 30era, garai batean Munategi baserria zen belardian, Loiolako Santutegiko atzealdean, Azpeitian, Europako Sega Txapelketa jokatu da. Eta gu beste herri bat izango gara hizkuntzen zelaian, gure ereserkia segapotoan dugula azalduko gara, gure koloreak bihotzetan, gure egiteko erak arretaz zorrozturik. Eta orduan libreago sentitzeko modua izango dugu, politikarien diskurtsorik gabe, zer egin behar dugun esateko goitik bidalitako agindurik gabe. Kontxo, horrelakoetan zein gustura erabiltzen diren “gara” eta “dugu” aditzak!

Segak eta lagunak, emakumeak nahiz gizonak lehian garaile izategatik, ohartu gabe horrelako ekitaldi bat antolatzeke gai den herria libre dela berez, gainontzekoek diotenari kasu egin beharrik gabe.

Almitza ongarritu gabeko lekuan hazten den belar askea eta egoskor xamarra da. Abuztu amaiera aldean beste zita bat dugu garenarekin eta izan nahi dugunarekin Loiolako Santutegian. Segi segak zorrozten. ■

Iruñeko Planetarioa
Antso Ramirez kalea, z/g Iruñea
www.pamplonetario.org

Imanol Alvarez

IRAKASLEA ♦



INIGO AZKONA

Konta niezazueke...

ARTIKULUTXO HAU idazterakoan arazo bati ekin behar izan diot lehenen: zertaz idatzi. Ez buruan gairik ez daukadalako, gehiegi darabiltzadalako baizik.

Konta niezazueke orain gutxi Bilboko Udalak hartu duela erabaki polemiko bat: Egirleta mendatearen ingurumarian gizonetzkoen arteko ligea (*cruisinga*) debekatzea. Ziur aski urtetan hartu duen deliberorik surrealistena da, esperpentotik asko daukana. Izan ere, ezina baita non eta mendian mutiletan ibiltzea, edo zirriak edota txortan egitea bera ere debekatzea. Debekatzea akaso bai, baina eragozteaz ez. Esan gabe doa: frankismoak lortu ez zuena ez dute orain lortuko PPK (proposamena aurkeztu zuena) eta PNVk (aldeko botoa eman zuen alderdi bakarra).

Konta niezazueke azken boladan antza gehitzen ari direla eraso homofoboak, zeintzuk hipokresiaz salatzen baitituzten arestian aipaturiko debekuak gauzatzen dituztenek eurek. Hipokresiaz diot, zeren holako galarazteekin pertsonon askatasuna murrizteaz gain, gizarteari helarazten dioten mezua baita sexu berekoen arteko harremanak ez direla zilegi eta, nolabait, hainbati justifikazioa ematen baitiote iseka egiteko edota fisikoki erasotzeko ere.

Konta niezazueke nola politikari batzuek euren homosexualitatea modu partidistan erabiltzen duten

solidario eta moderno itxura eman gura izateko, gero jokamolde xenofobo eta arrazista izaten badute ere. EAEn azkenaldian ezagutu dugu armairutik publikoki irtetea sinpatia politikoak eragiteko erabili duenik; are gehiago, irudi publikoa leundu nahian, bere ezkontza ere erabiltzeko gauza izan denik ere izan da.

Konta niezazueke, nola askotxotan, gero eta gehiagotan tamalez, etsita sentitzen naizen euskaldunok euskarari benetan zer estimu txikia diogun ikusirik, behin folklorekerietatik irtenda behintzat

Konta niezazueke, beste arlo batera salto eginez, nola askotxotan, gero eta gehiagotan tamalez, etsita sentitzen naizen euskaldunok euskarari benetan zer estimu txikia diogun ikusirik, behin folklorekerietatik irtenda behintzat. Adibidez —eta adibidea baino ez da— Aitor Mazo zendutakoan profesio-kideek egin zioten omenaldian ia dena izan zen erdara hutsean. Mingarria suertatu zitzaidan noren eta Carlos Paneraren ahotsetan (Aitor antzerkigintzan hasi eta euskara

hutsezko antzerkia egiteko sortu zen Maskaradako zuzendaria) laudoriozko hitzak erdara hutsez entzun behar izatea, edota Aitorren lankide eta lagun min Asier Ormazarenak... Ene aburuz, duintasuna erakutsi zuen bakarra haren alaba Nerea izan zen, aitari gutun hunkigarria irakurri baitzion euskara hutsez.

Ene! Oraindik zertaz idatzi ebatzi gabe amaitu zait espazioa! ■

JULE GOIKOETXEA



Kattalin Miner

♦
KAZETARIA

Agur esan nahi ez

DENBORAK ALDE egiten digula diogu sarri, eta norberak leku berean irtzi ematen lau urte daramatzala ohartzean bat-batean gorpuzten du sentsazio hori. Lau urte, legealdi baten gisan, eta horregatik agian izenburua, nahiz eta Morauren kantu bati erreferentzia egin, agian politikariek bezala norberaren lekutxoaz uztea kostatzen delako.

Baina ez, badira lekuak maitaleak direnak, badira espazioak maitatzen ikasten dituzunak, eta badira horregatik agur esan nahi ezak. Badira handi egiten zaituzten jardunak eta biharamuncan gutiz txikitu

eta jan ere bai. Badira hasi eta bukatu ezin dituzun artikulua eta motz geratzen zaizkizunak. Bidali ostean paparra puzten dizutenak eta baita damuaren harrian bizkarreratu. Badira jardunak ohitura bilakatzaren direnak eta ez erronka.

Horregatik, “hitz abandonatuak oharretan utziak, laburregiak dira munduko agur guztiak, maitalearentzat”.

Besterik ezean, espero dut, nire artikulua batzuekin bezala, nire agurrarekin “berandu ibili naizen arren, garaiz heldu” izana. Izan ere, niregan “bada sekula itzaltzen ez den ARG(A) bat”. ■



Joxerra Garzia

♦ IDAZLEA

Gaueko itzalak haizean dilindan

UDAKO BERO NAGIAK, ustekabeen, bi klasiko handi eta berezi elkartu dizkit aurten, zori on edo txarrerako. Bata, Bob Dylan, aspaldikoa da, baina kantuak sortzen, diskoak plazaratzen eta kontzertuak ematen jarraitzen du 74 urte bizkarrean daramatzala (bazterrean ezin utzizko kargamentua baita hori, adin horretantsu zendu zen beste jenio kupel-sabel handi hark ohartarazi zigun bezala). 17 urte zituela *Blowing in the wind* (*Haizean dilindan*) betiereko hura idatzi zuen mukizuak ehunka kantu jenial idatzi ditu geroztik, eta apenas dagoen musika generorik noiz edo noiz landu ez duenik. Uztailaren 11n Donostian eskaini zuen kontzertuan, ordea, kantu gehien-gehienak inorenak ziren, ez bereak. Azken batean, *Shadows in the night* (*Itzalak gaue?*) bere azken diskoa ere bereak ez diren kantuekin osatua dago, eta disko hori promozionatzea zen, noski, kontua.

Bost musikari bikain lagun hartuta, perfektioetik gertuko emanaldia izan zen Dylanena. Perfekzioak perfekzio, ordea, Ilunbe-ko zezen plazan bildu ginen 4.000 bat entzuleen artean ez dut uste laurdenik ere ederre- z asea itzuliko zenik etxera. Ni ez, behintzat. Hurrengo egunetan hainbat hedabidek plazaratutako iruzkinetan ere argi eta garbi nabari zen kontraesana, gustatu beharreko kontzertua nekez gertatu baitzitzaion inori benetan gustagarri. Dylan Dylan da, ordea, eta ezin ba argi eta garbi esan kontzertua kaxkarra izan zenik.

Orain hurrena, Zurriolako hondartzan aritu zenean, higuigarria izan zen Dylanen jokabidea, batez ere Mikel Laboarekiko. Oraingo honetan ez da pasotismo maila horretara iritsi, baina jakin nahi nuke ba ote zekien non ari zen

kantatzen, aurrean entzulerik ez balu bezala aritu baitzen denbora guztian. Hasieran, ez *bello* ez *bola* (eta, jakina, ez *kaixo*) triste bat gabe ekin zion kantatzeari, eta berdin egin zuen atsedendian eta amaieran. Ez da inola ere ospea kontrako eztarritik joan zaion izar bakarra, baina jarrera hori ulergarriagoa da Julio Iglesias baten kasuan Dylanengan baino, bere kantuetan gizarteko galtzaileak baitira protagonista.

Batek baino gehiagok aipatu duen dibismo hori gorabehera, Dylanek bere azken bira horretarako egin duen kantu hautuak eman dit zer pentsaturik gehiena. Dylan zale amorratua naiz, eta hala izaten jarraitu nahi nuke Donostiako kontzertuaren ostean ere. Horretarako, ordea, nola edo hala zuritu beharra neukan idoloaren jokabidea.

Zuritze lanean, aspaldikoa izateari ere aspaldi utzitako beste klasiko are klasikoago bat, Jorge Luis Borges agor ezina, izan dut lagun. Klasiko- ez ari dela, zera dio idazle argentinarra: klasikoak ez direla modu berezian idatzitako liburuak, modu berezian irakurtzen ditugun liburuak baizik. Miresmenez irakurtzen ditugun liburuak dira klasikoak. Gu irakurleon jarrerak bihurtzen ditu klasiko, ez idazkerak.

Nik neuk, aitortu behar dut jarrera horretan joan nintzela Dylanen kontzertura. Dylan izan ez balitz, ez dut uste amaiera arte geratuko nintzenik. Halako kantu eder mordoaren egile izanik, eta jakinik bere kantuengatik garela haren zale amorratu, zer dela eta aukera hori egin?

Dylan salbatzeko moduko erantzun bakarra Borgesek xuxurlatu dit belarri ertzera. Bere literatur obraz ari dela, zera dio une batean Borgesek: “Saiatuko naiz neure burua ez plagiitzen, nork bere burua plagiitzea baino askoz hobea baita inor plagiitzea”.

Amorruak amorru, Dylan zale amorratua izaten jarraituko dut. ■



Antton Olariaga

ERDIKO KAIERA

GURE KULTUR PROPOSAMENAK


ABUZTUAN BIZIRAUTEKO OINARRIZKO TRESNERIA

Maletak egiten harrapatu zaitugu? Nolatan ez duzula libururik sartu? Ez da izango behintzat gu saiatu ez garelako. Abuztuan aldizkari honek oporrak hartuko ditu, baina zer irakurri, ikusi eta entzun ez da faltako. Espero dugu ARGIAko erredakzioaren aholku sorta honekin lortuko dugula gure astekaria jasotzen ez duzun hilabete hori luzeegia ez izatea. Ondo pasa!





Seguru monogamoak garela?



Sexualitatea

Sex at Dawn: The Prehistoric Origins of Modern Sexuality

Christopher Ryan,
Cacilda Jethá

Harper, 2010

CHRISTOPHER RYAN (AEB) eta Cacilda Jethá (Mozambique) liburuaren egileek gaur egun gizakiaren sexualitateaz nagusi den diskurtsoa hankaz gora botatzen dute. Haien ustez, mendez mende, agintari erlijiosoen sexualitatearen jatorria eta izaera isildu dute, medikuek patologizatu, zientzialariek nahita bazter utzi, eta terapeuta moralizatzaileek lurperatu.

Ezkontza tradizionala, monogamia, familia nuklearra eta maitasuna-sexua lotura erdigunean egoitea zalantzan jartzen dute. Haien ustez, ukazina da gizakiak sexu grina duela, eta aldiz, gaur egun erotismoari gerra deklaratu diogula diote, biologiari eta milioika urtetako grinaren eboluzioari muzin eginez.

Haien teoria defendatzeko gaur egungo giza talde batzuen ereduak azaltzen dituzte, baita hainbat primateren sexu portaerak ere. Gaur gaurko gaiez ari dira, eta umore ederrez gainera.

Ryan eta Jethá-ren liburuak *Sex at Dawn: The Prehistoric Origins of Modern Sexuality* du izenburu. Gaztelaniaz aurki daiteke: *En el principio era el sexo. Los orígenes de la sexualidad moderna. Cómo nos emparejamos y por qué nos separamos* (Paidós transiciones, 2012). Ez dute frantsesera itzuli, ezta euskarara ere, noski. ■

Onintza Irureta Azkune

Komunikazioa ere politika da

KONTZIENTZIAK ASTIN DITZAKE ekintza komunikatibo batek, hartzailearen eskemak hausteko gai bada. Diskurtso orokortua pitzatzea da gakoa, elementu berriak sartzea. *Como acabar con el mal* liburua oso baliagarria da gerrilla komunikazioa interesatzen zaion edonorentzat.

Politika egiteko modu berri eta berritzaileei buruzko gogoeta da. Politika egiteko modu subertsibo zuzenak, azalpen teorikoak, aukerak eta mugak besteren artean. Azken hamarkadetan egindako dozenaka ekintza jasotzen ditu Bartzelonan argitaratutako liburu honek; hainbat Euskal Herrikoak, dispartzioaren aurkako Giralduak edo intsumisoei erabilitako teknikak kasu.

“Nola da posible gure jendarteko herritarrek horrenbesteko naturaltasunarekin onartzea egungo botere harremanak? Zergatik bizi dugu hau dena gauza normala balitz bezala, eta orokorrean, zergatik ez ditugu zalantzan jartzen? Nola sortu interferentziak eta nahasketak boterearen inguruan dagoen kontsentsu sozialean?”, galdetzen dute aurkezpen gisa. “Politika ezkertiarra egiteko moduen zabalkundean ekarpena egin nahi genuke”, diote.

Boterea, kultura, subertsioa eta irudimena ardatz, herri mugimendu subertsiboenen adibidez jositako dago: Marcos komandanteordeetik hasi, Bartzelonako udaltxean okupazioaren bandera jarri zutenekoa, Alemaniako pilak egiten dituen enpresaren ustelkeria salatze-

ko ekintzak; McDonalds, Benetton, Shell, Coca Cola eta beste multinazional askoren aurkakoak; oso ezagunak izan

ez arren, oso inspiragarriak gerta daitezkeen gatazka txikiak garaipen txikiak...

Luther Blisset, A.F.R.I.K.A. talde autonomoa eta Sonja Brünzels-en izenean sinatuta dago, eta interesa duenak izen hauen atzean ekintzaile irudimentsuen historia topatuko du. Nabarmentzekoa da erabili duten formatu berezia, orri bakoitza hiru heren horizontaletan banatuta idatzita baitute, letra tipo ezberdinekin bereizita goiko, erdiko eta beheko parteak. Puntuz puntu goian teoria, erdian azalpen eta gogoetak, eta behean praktikak azaltzen doaz. Ongi pentsatuta dago formatua.

Gerrilla komunikazioaren manuala. Min lokal eta orokorrean tratamendurako kontsulta praktikoa. Nola amaitu gaizkiarekin, da liburuaren izenburu osoa. Eskuratzen zaila den liburu horietako bat da, baina sarean PDFan aurki daiteke <http://tiki.com/340788> helbidean. ■

Subertsioa

Cómo acabar con el mal
Hainbat egile.

Virus, 2000



Lander Arbelaizte

Eta hasi dira gauzak gertatzen

“CANeko ARDURADUNAK auzitegien arriskutik libre direla ematen du. Bestelako ardurak, berriz, haizeak eraman ditu. Nafarroako Kutzaren galera foru erkidegoko historia garaikideko lurrikara politikorik handienetakoa izan da, baina haren protagonistei ez die ikara horrek min handirik egin”.

Horrela bukatu du Joxerra Senar *Berriako* kazetariak ikerketa eta dokumentazio lan handi hau. Esaldia, baina, hauteskundeen emaitzak eta ondorioak jakin gabe idatzia dago. Orain ere hala ote da? Ez, jadanik esan liteke zerbait gertatu dela, besteak beste, UPNk Nafarroako Gobernua galdu du. Eta Nafarroako Legebiltzarreko ikerketa batzordeak urte hasieran ateratako ondorioetan, hurrengo legealdian ikerketarekin jarraituko zuela iragarri zuen. Oraindik, beraz, bada aukerarik erantzukizunetan aurrera egiteko. Legebiltzar eta Gobernu berrien ardura da ikerketarekin jarraitzea, ahal den neurrian liburu honen titulua gezurtatzen jarraitzeko.

Nafarroako Kutzaren sustraia etatik hasi eta duela lau egun arte aurrezki kutxak izandako bilakaera jasotzen du Senarrek liburuan, Caixabanketik Kutxa irentsi arte klabe garrantzitsuenak eskainiz. Liburua batez ere azken 15 urteetan oinarritua dago, baina garrantzitsuak dira gako historiko horiek, horrela

h o b e t o
u l e r t u k o
b a i t i r a
2000. urte-
tik aurrera
gertatuta-
koak, fun-
tsean nola
ihes egiten
den etenga-
be beste euskal aurrezki kutxetatik, Espainiako Estatuko bestelako aliantzetan murgildu eta itotzeraino.

Miguel Sanz eta Enrique Goñi buru dituen Nafarroako Kutzak eta bere Korporazioak azken 15 urteetan emandako urratsak xehetasun handiz arakatu eta azaltzen ditu Senarrek. Estatuak, UPNk, PSNk eta Nafarroako enpresari boteretsuenek Nafarroa nola kontrolatu eta zurrupatu duten ulertuko du lerro hauetan murgiltzen denak.

Adi baina, liburuari ekiten dionak badu arriskurik: datu, azalpen, argudio eta, oro har, kontakizunaren sarean harrapatua gelditzearena. ■

Ustelkeria

CAN: eta hemen ez da ezer gertatu

Joxerra Senar
Pamiela, 2015



Xabier Letona

Abuztuko zitak Easo Hirukotearekin

MILA AUKERA INTERESGARRI aurki ditzakegu uda honetan musika klasikoaz disfrutatzeke, baina guztien artean Easo Hirukoteak eskainiko duen kontzertua, Musika Hamabostaldiko “Hamabostaldi Ibiltaria” izeneko zikloan, ez nuke galduko. Arrazoi askorengatik. Hasteko, talde honetako kideen kalitate musikala frogatuta dago. Miren Urbietaren sopranoa, Arkaitz Mendoza piano eta organo jolea eta Erlantz Fernandez tronpetista musikari gazteak izan arren, badute karrera arrakastatsua atzetik. Bestalde, egitarau zinez erakargarri eta dotorea eskaintzen dute, barroko garaian kokatua. Aria zoragarriak entzun ahal izango ditugu Miren Urbietaren ahotik, besteak beste, *When I am laid in earth* Henry Purcell-en *Dido* eta *Aeneas* operakoa, *Destero dall'empia* dte, Haendel-en *Amadigi* di



Musika klasikoa

Easo Hirukotea
Musika Hamabostaldian

Noiz: Abuztuak 8, 12 eta 17an.
Non: Araian, Mutrikun eta Amurrión.

Gaula obrarena, edo *Let the bright Seraphim*, konpositore berberaren *Samson* operatik ateratakoa; organoan, Arkaitz Mendozak Bach-en *Preludio eta Fuga BWV 857* joko digu, edo Scarlatti-ren Sonata pare bat, hain freskoak izaten direnak. Tronpetak ere bere banakako tartea izango du, Scarlatti-ren hiru aria joaz.

Baina arrazoi musikaletatik aparte, badago beste arrazoi bat emango dituzten hiru kontzertuen gutxienez bat aukeratzeko. Araia, Mutriku edo Amurrio bisitatzeke parada izango dugu, eta hori beste eragingarri bat da. Gogoratu eza-zue, abuztuaren 8an Araian, 12an Mutrikun eta 17an Amurrión, musika ona entzuteko aukera paregabea izango dugula. ■

Montserrat Auzmendi

ELAren 30 urte: instituzioetatik karrikara



Sindikalgintzaren historia

*Gauzak horrela
(ere) izan ziren*

German Kortabarria

Pamiela, 2015

GERMAN KORTABARRIA 1975ean hasi zen ELAren zerbitzu juridikoe-tan eta 2007ra arte sindikatuaren martxa barru-barrutik ezagutzeko parada eman dioten karguetan ibili da, izan Batzorde Eragilean edota Idazkari Nagusiaren alboko gisa. Baina hau ez da memoria pertsonalen liburu bat, izenburuaren *ere* horrek hori pentsarazten digun arren.

Hau, gure historia hurbilari buruzko lana da, ELAren sindikalgintzatik abiatu eta Euskal Herriko 30 urtetako gertaeren kronika bat. Agian, apur bat ikuspegi korporatibistarekin dago idatzia, egileak berak ez du ezkututzen “etxearen edertasunaz harroa eta akatsekin onbera” dela bere begirada. Esaterako, nolabaiteko autokritika falta suma liteke

Frankismo garaiko ELAren “izotzaldiaz”, Josu Chuecak sindikatuaren mendeurrenean ARGIAN (2.285. zenbakia) erabilitako hitza hartzen badugu.

1976ko Eibarko kongresurainoko pausoak eta hortik aurrerako metamorfosia ezin hobeto azal-tzen zaizkigu. Sindikatu tradizional instituzio zalea izatetik, XXI. mendeko lan-hitzarmenetan patro-nalaren deabru izatera igaro da ELA. 80ko hamar-kadan, afiliazio sare eta kuota sistema sendo bate-kin, egitura autonomikoetan egonkor eta “bere gauzetan” ibili zen; gero palazioetako kontuetan sartu zen arlo sozialeko eskumenak lortu nahian. Baina akituta bukatu zuen, 90eko hamarkadan prestakuntza jarraituaren negoziazioarekin ikusi zen bezala.

Hortik aurrera, 1998ko Gernikako ekitaldiko Jose Elorrietaren “Estatutua hil da” famaturainoko eta ondorengo gorabeherak jakin nahi dituenak, hau du liburua. LABekiko harremanak, ETAren esku-hartzea, Ibarretxe plana edota Caballitoko greba luzea, dena idazkera ulergarri dago kontatua. Eta eskertzen dira liburuaren amaierako ia 1.200 azal-pen-oharrak, baita izenen aurkibidea ere. ■

Urko Apaolaza Avila

Beti zorretan bizi naiz mundu honetan

OCCUPY WALL STREETEKO kide ezagunetako bat den Graeberrek munduko zorra azaltzen digu mate-matikaz zero dakien honek ulertzeko moduan: adi-bide soilekin, jakin mina pizten duten gertakizun historikoekin eta irakurketari abaila hartzen uzten dion idazkera soltean.

“Zorrrak ordaindu behar dira” gure oinarri mora-letako bat den hori planteatuz hasiko du liburua. Zorrrak ordaindu behar izateak sortzen dituen injus-tiziak ez baitzaizkigu moralki hain onargarri izango. Bi urtez bizi izan zen Madagaskar jarriko du adibi-de: Frantziaren zordun omen den Madagaskarren 10.000 herritar hil ziren Malariak jota. Eltxoa kon-trolatuta mantentzeko programa ez zen diru gehiegi kostatzen, baina Nazioarteko Diru Funtsak behar-tutako murrizketen ondorioz bertan behera geratu zen. Zaila da argumentatzen 10.000 pertsonaren heriotzak zentzua duela, Citibank-ek arduragabeki emandako maileguan galerarik izan ez dezan, eta nahiz eta, egia esan, bankuaren balantzean deus gutxi balio duen diru kopuru horrek.

Liburuak adibideekin azaltzen duenez, humanita-tearen historiako aldi gehienetan pertsona gehienak zordun direla esan izan da. Baina erne! Zorrraren his-

toria bezain z a h a r r a k omen dira z o r p e t z e a kontrolatzeko arauak eta zorrrak barka-tzeko mugi-mendu iraul-tzaile eta legeak.


Adibidez, eliza katolikoak betida-nik debekatu izan zuen dirua interes truke uztea. Eta hebrear tradizioan 50 urtero ospa-tzen zen Jubileua: urte horretan zor guztiak auto-matikoki kitoan geratzen ziren. Horrek erabat eragi-tzen zuen salerosketetan.

Ezagutu beharreko historia eta azalpenak dakartza liburuak, Graeberrek salatzen duenez, “zorrra zer den ez ulertzea, bere adierak duen malgutasuna, horixe da zorrrak duen indarraren oinarria”. Frantsesez eta gaz-telaniaz ere irakur daiteke, Les liens qui libèrent eta Ariel editorialetan; euskaraz, oraingoz ez. ■

Ekonomia

*Debt: the first
5000 years*
David Graeber.

Melville, 2011



Estitxu Eizagirre Kerejeta

Jolastu, gozatu, hazi



Aisia

Haurren aisialdi parte-hartzailea, euskalduna, hezitzailea eta herritarra garatzen
Herri Hezitzailea lantaldea.
2015



AISIALDIRAKO DENBORA biderkatu egingen zaie hurrei uda garaian. Eta aisialdia, jolasa, funtsezkoa da umeen garapenean. Herri hezitzaileen sarea eta hamahiru eragile batzen dituen lantaldeak gogoeta egin du, haurra erdigune eta protagonista dituen aisialdi eredu pedagogikoaz. Emaitza, hausnarketa teorikoa eta adibide praktikoak uztartzen dituzten bost liburuxka: *Haurren aisialdi parte-hartzailea, euskalduna, hezitzailea eta herritarra garatzen*; *Nola sustatu haurren parte-hartzea ikuspegi feministatik*; *Nola egin udaleku parte-hartzailea*; *Nola egin ludoteka parte-hartzailea* eta *Parkeak bizitzeko modu berriak*.

Haurraren benetako parte-hartzeaz mintzo zaizkigu liburuxkak, bizipenetatik eta zirratetatik abiatutako parte-hartzeaz, aniztasunean eta berdintasunean oinarritua, umeak subjektu aktibo eta eraldatzaile direla ulertuta, “pertsona oro, haur zein heldu, balioen transmisore baita”. Harreman osasuntsuak garatzeaz mintzo zaizkigu, ahaldundte kolektiborako estrategiez, tokian tokiko ezaugarrien eta parte-hartzaileen araberrako aisia/udaleku/ludoteka ereduak prestatzeaz, arauak adostez, espazioak hartzeaz eta antolatzeaz, ebaluaziorako metodologiez, helduen rolaz, parkeak sortu eta eraldatzeko aholkuez, beldur eta kezkei aurre egiteko moduez, haurrek diotena haiekin batera praktikara eramateaz, auzoko komunitatera eta herrira zabaltzeaz, umeekin elkarlanean sorturiko hiri-proiektuaz...

Ez ditzagun umeak jardueretan hainbeste bideratu, diote, erabakimena berreskuratu dezatela, landu dezatela sormena jolasaren bidez. Argi dute egileek: “Jolasa behar biologikoa da”.

Mikel Garcia Idiakez



Frackinga

Gasland

Zuzendaria:

Josh Fox.

AEB, 2010. 106 minutu.

Sua darion txorrotako ura, eta askoz gehiago

“ZENBATERAINO LAGUNDU DU *Gasland* filmak frackingaren aurkako herri mugimendua sustertzen?”. Horra Subilla Gasteizko Frackanpadan entzun genuen galderetako bat. Ezin erantzun zehatzik eman, baina susmoa dut Josh Fox estatubatuarrak 2010ean ondutako dokumentalaren irudi ezagunena —sua darion txorrotako ura— lau haizetara zabaltu izana erabakigarria suertatu dela haustura hidraulikoa beste ingurumen arazo batzuk baino askoz indar handiagoz itsasteko irudimen kolektiboan. Ia denok dugu frackingaren berri, eta ia inork ez dizu hitz egingo haren alde.

Filmaren ordu eta hiru laurdenak egilearen historiarekin hasten dira. 2009an, Foxek hidrokarburo ez-konbentzionalen industriarekin harremana izan zuen lehen aldiz: 100.000 dolar eskaini zizkieten bere lurretan putzuak egiteko baimenaren truk. Eskaintza oparoak zalantza piztu zuen Foxengan, eta ikertzeari ekin zion, AEBetan haustura hidraulikoa lehenagotik erabiltzen zen lekuetako testigantzak jasoz.

Barrutik egindako kazetaritza lantzat jo daiteke *Gasland*. Datu ugari emateaz batera, egilea saiatu da frackingak kaltetutakoen emozioak azaleratzen, eta bereak ez ditu ezkutatu. EAEn haustura hidraulikoari oztopo handiak jartzen dizkion legea onartu berri den hone tan alferrekoa eman lezake filma ikusteak, baina *Gasland* gomendagarria iruditzen zait edonola ere, kalitatez eginda dauden lanak hala direlako beti, eta mehatxuaren aurrean ez lasaitzeko akuilu ezin hobea delako gainera. Interneten libre dabil filma eta euskarazko azpidatziekin ikusi nahi baduzu, ARGIA.eus-en Multimedia atalean aurkituko duzu, Gasaren lurraldea bilatuta. ■

Unai Brea



Kronika historikoa

El Corralito Foral
Iván Giménez.

Pamiela, 2015

Errealitateari antza emateko saioa

CORRALITO hitza ez zaigu arrotza dagoeneko. Argentinan aspaldian eta Grezian berriki eman du zer esana. Gurean, krisi garaia iritsi zaion *Navarrismo* delakoaren erraiak ezagutzeko balio izan digu. Izenburuan dator *Corralito* delakoa. Foral du adjektibo. Aparteko saio honetan, alta, foruaren izaera herriaren zerbitzuan egon beharrean, tokiko boteretsuek kapitalismoaren aldeko ekosistema nola bihurtu duten kontatzen digu Iván Giménezek.

1936ko Altxamendu frankistaren 40 urteko bakealdiak beste hainbeste urterako urrundu zuen demokrazia. Nafarroan kapitalak berezko balio izan du Errepublikak hondoratu zutenen inozentzia erosteko, baita egungo demokraziaren euskarriak zementatzeko ere.

Nafarroak mundua liluratuko edo harrituko zuela esan omen zuen William Shakespearek. Esatera topikoa, tipikoa, mitikoa bilakatu da. Egiari zor, neronek ez dut behin ere garbi izan Nafarroak euskaldunok liluratu ala harritu ote gaituen. Biak batera, naski.

Nolanahi den ere, aspaldian ez nuen sentitu horrenbeste pena/larritasuna eta asebetetzea aldi berean liburu bat irakurtzean. Ez dakit inoiz bi sentimendu kontrajarri horiek horren bateratuak hauteman ote ditudan!



Francoren erregimenaren alde antolatu zen lehenbiziko Xabieraldietako bat. Giménezek Nafarroako erregimenaren zimenduak ditu aztergai liburuan.

Beharbada, liburuak gertakari historikoak horren krudelak –horren urrunak eta hurbilak aldi berean– eta iraganeko errepikapenak direlako, oraindik ere geure errealitatea onartzeko “irents” ezin izatea. *El corralito foral* liburuak errealitate hori ontzeko balio digu. Edo antza ematen laguntzeko bederen. ■

Mikel Asurmendi



Liburu azoka

Zarautzen, abuztuaren 21etik 30era Munoan.

EUSKADIKO LIBURU GANBARA

- Euskal eta erdal nobedadeak
- Euskal musika
- %10eko beherapena

*Bizi
irakurriz!*

Bertso-zopa

Osa ezazu Jone Uriak 2009an Zestean botatako bertsoa. Laguntza behar izanez gero, bertsoari falta zaizkion hitzak zopan bilatu. Doinua: *Ez nau izutzen negu burbilak III*. Gaia: Esku artean duzu sinatu beharreko papera.

Mutila ta ni _____ eta berriz
nahiz ta horretan saiatu
ez dugu lortzen ez dugu lortzen
patua beti da _____
ta azkenean mediku bati
_____ kontsultatu
emaitzak esku batean _____
eta esanez "Barkatu".
Pena da baina- mediku jaunak
hala esan zidan _____
"zure bizitzan ezingo zara
sekula haurdun _____".

Nahiz hasieran biok gelditu
ginen _____ erdi grogi
bagenekien gertatzen dira
halako mila _____.
Adoptatzea erabaki ta
_____ al dugu ongi?
Txinan umek ez _____ dute
ez familia ez ogi.
Etor _____ ta maitasunez
guk jarriko dugu _____
gure etxean jaso dezala
Txinan ezin duen hori.

Bi urte bete berriak ditu
hau da notizi _____
Miren izena jarri diogu
senarraren erregela.
Soilik _____ da sinatzea orain
aurrean duan _____
dardarka baina sinatuko dut
_____ baitakit horrela.
Nahiz badakidan beti esaten
den gauza _____ dela
seguru nago maiteko dugu
gurea _____ bezela.



UKBERLINE-CC BY

Z	Z	O	B	Z	O	E	V	R	S	U	T	L	O	M	A
D	V	I	M	F	M	I	A	B	H	T	U	T	U	L	D
G	D	G	J	J	E	S	V	O	I	A	T	P	E	F	V
J	E	E	A	S	N	P	T	V	S	P	L	P	S	H	P
S	E	R	T	U	A	M	U	Z	T	G	A	A	B	A	N
B	T	B	A	M	A	D	V	D	O	P	M	R	A	R	C
T	S	A	A	T	I	L	L	N	R	F	F	A	L	T	A
L	I	R	N	T	U	P	I	H	I	M	F	Z	I	U	O
G	R	E	R	N	V	L	E	D	M	C	I	O	T	Z	A
O	T	B	E	H	I	N	Z	D	A	L	Z	A	Z	B	J
T	B	R	H	M	F	T	R	U	V	D	J	E	C	I	P
H	S	E	O	N	D	O	J	C	I	T	Z	E	L	A	M
R	A	B	U	T	A	T	U	A	H	U	N	B	P	L	T
R	L	I	I	D	O	L	U	R	F	D	U	Z	S	F	U
U	T	U	A	D	T	Z	Z	I	M	B	A	N	O	J	V

Sudokuak

Erraza

			1	3			2	4
		3	9				8	7
6				8	7	5	1	3
3	9	8						5
			2		9			
2						7	9	1
9	4	7	5	6				2
1	5			4	8			
8	3			1	2			

Zaila

		1	7		6			
				9				2
4	9				2	3		
			9	6			5	3
		9				7		
5	6			2	7			
		5	6				8	9
3				4				
			5		1	6		

Gurutzegrama

	1	2	3	4	5	6	7	8	9
1									
2									
3									
4									
5									
6									
7									
8									

Goitik behera:

1. Era berberean (bi hitz).
2. Gaurko. 3. Geure.
- Rona. 4. Zakur. Lurpeko
- trena. 5. Animaliak harra-
- patzen. 6. Automobilak.
- Zazpigarren musika nota
- (alderantziz). 7. Gurtzea.
- Hitza, berba. 8. Jaurtigai
- bat bota. 9. Nazio bati
- dagokiona.

Ezker-eskuin:

1. Hegoalde. Huts, erru. 2. Adindu, zahartu.
3. Oinen azpian duguna. Hagin. 4. Globulu
- gorrien urritzea. Bi erromatar zenbakiz.
5. Merkurioaren sinboloa. "Berandu joan ...,
- berandu etorri". 6. Bihotzeko arteria. "... eginak
- biharamun ona". 7. Argazkiko udalerria.
8. Burutapen. Israelgo lehen erregea.



ZARATEMAN-CC

Soluzioak

6	S	P	Z	I	L	7	9	E	8
9	L	8	P	6	E	Z	S	I	
Z	E	I	8	9	S	L	P	6	
1	6	L	E	S	8	P	9	Z	
8	9	E	6	P	Z	I	L	S	
S	P	Z	I	L	7	9	8	6	
E	I	S	7	8	P	6	E	9	
8	9	S	Z	6	E	I	P	7	
7	8	9	S	Z	6	E	I	P	

Ezker-eskuin: 1. Hego, Ogen. 2. Agureu. 3. Lur, Hoz. 4. Anemia, li. 5. Hg, Ezker. 6. Aorta, Lan. 7. Umiera. 8. Asmo, Saul. **Goitik behera:** 1. Halahala. 2. Egungo, Merro. 5. Ehan. 6. Osoak. Is. 7. Gur, Ela. 8. Titatu. 9. Nazional.

P	E	9	1	8	S	2	7	2	6
S	L	7	1	6	F	Z	7	9	8
6	8	Z	3	7	7	9	S	4	1
1	6	8	S	3	Z	7	8	P	9
9	Z	7	2	1	P	4	6	8	3
E	S	P	8	9	6	7	1	7	
L	9	E	Z	7	1	8	6	P	
Z	1	S	4	6	8	7	9		
8	4	6	9	7	3	1	S	2	

Zaila

A	F	O	N	V	B	N	I	Z	Z	L	T	A	L	U	A	D	I	O	T	
R	I	S	Z	U	C	O	R	E	S											
R	A	S	E	N	A	T	A	U	A											
O	N	D	O	I	C	I	Z	E	L											
T	R	B	E	R	F	T	R	I	C											
C	O	T	E	R																
G	O	T																		
A	V	E	R																	
Z	O	B	Z																	

Mutila ta ni **behin** eta berriz nahiz ta horretan saiatu / ez dugu lortzen ez dugu lortzen / patua beti da **patu** / ta azkenean mediku bati / **arazoa** kontsultatu / emaitzak esku batean **hartzu** / eta esanez "Barkatu" / Pena da baina- mediku jaunak / hala esan zidan **altu** / "zure bizitzan ezingo zara / sekula haurdun **geratu**" / Nahiz / hasieran biok gelditu / ginen **triste** erdi grogi / bagenekien gertatzen dira / halako mila / **histori** / Adoptatzen erabaki ta / **hautatu** al dugu ongi? / Txinan umek ez **on**en dute / ez familia ez ogi / Etor **dadila** ta maitasunez / guk jarriko dugu **lodi** / gure etxean jaso dezala / Txinan ezin duen hori / Bi urte bete berriak ditu / hau da notizi **itzela** / Miren izena / juri diogu / senarraren erregela / **Soilik** **falta** da sinatzea orain / aurrean duan **pape** / la / dardarka baina sinatuko dut / **ondo** baitakit horrela / Nahiz badakidan beti esaten / den gauza **berbera** dela / seguru nago maiteko dugu / gurea **balitz** bezela.

Zoratuta

ZORATUTA DAUDE. Hori esan dit historia hau azaldu diodan lehenak. Japoniarrak zoratuta daude.

Fruitu eskasia, nonbait, eta fruituekiko halako gurtza xelebre bat antolatua dute Japonian. Jaso dezakezun opari ederrena fruituren bat da. Horraino ados: fruituek merezi dute. Fruitu jakin batzuekiko zorarena izugarria da, ordea. Adibidez, Ishikawa eskualdean mahats (*Vitis vinifera*) berezi bat lantzen dute: 2008az geroztik saltzen da, eta, jendeak erreferendum batean aukeratuta, *Ruby Roman* du izena. Mahats mordo bakan batzuk besterik ez dira ekoizten; “premium” sailkaturiko mordoak gutxienez 700 gramo pisatu behar du, eta ale bakoitzak 30 gramo. 2010. urtean sei mordok soilik lortu zuten sailkapen hori. 2011 eta 2013 artean bakar batek ere ez. Iaz eta aurren, berriz, bai. Aurren dagoeneko egin dute mahats mordo ederrenaren enkantea. 700 gramo osatzen duten 26 aleko mordoak izan da onena, eta enkantean garestien ordaindua: 7.500 euro ordaindu ditu sukaldari batek, Masayuki

Hiraik. Harantz joatekotan bazara, Nikko Kanazawa hotelean gozatzeko aukera izango duzu.

Hokkaido irlako Yubariko meloiak (*Cucumis melo*) ere ez dira nolanahikoak. Gozoak, ura tamainan eta jateko puntu-puntuatan dau den lehenengoak ordainezinak dira. Ikuskatzaile bereziak dira meloia hatz koskorrekin kax-kax joz maila gorenekoak diren edo ez esango dutenak. 2008an 19.000 euro ordaindu zuten meloi bakar batengatik... Ahosabaian ez dakit, baina saketan paregabeak.

Yubariko meloia bezala, angurria ere luxuzko oparizat hartzen dute. Hokkaido irlan bertan soilik ekoizten da *Densuke Black* angurria, *Citrullus lanatus* var *lanatus*. 10-12 kiloko angurria da. Urtean 10.000 ale inguru hazten



Masayuki Hirai sukaldaria, enkantean erositako *Ruby Roman* mahatsaren 700 gramoko mordo eskuetan duela. Prezioa: 7.500 euro.

dute, eta batez beste 225 euro ordaintzen da. Uztako lehenak eskuratzeko, ordea, ikaragarritzko prezioa ordaindu behar da. Sekula ordaindu den gehiena 2008an izan zen; angurria bakar batengatik, 5.700 euro!

Inguruan ere badugu horrelako mozkinik: Arrasate aldeko arbigerak, malko ilarrak, Noirmoutierko patatak... ■

Ziazerba

GERO ETA GEHIAGO jaten dugulako irudipena dut. Ziazerba edo espinaka, *Spinacia oleracea*, dendetan eta saskietan ugaritzen ari da. Baita baretzeetan ere. Gure amona Joxepa zenak esaten zuen ziazerba ernatzeko lurrak bero behar zuela. Jeneralean urtean bitan ereiten da: udaberrian martxo-apiril aldera eta udaran irailean. Udaberrikoa uda amaiera arte jango dugu; udarakoa udazken eta negu osoan. Tartean ereinez gero, udazkenerako tontortu eta garatu egingo da, eta negurako alferrik galdu.

Uztailaren erdi aldera ikusi ditut ziazerba jaito berri hauek landare saltoki batean. Aldatu, aldatuko ditu baten batek, baina udazkenerako jaten al ditut! ■



Lautada arrearen bihotzean



FRACKANPADAN egin genuen *Bizi Baratzea*-ren azken aurkezpen solasaldia udako oporraldiaren aurretik. Plaza ezohikoa zen. Astebeteko kanpaldia burutzeko produktu ekologikoen azoka paratu zuten antolatzailerak —bide batez esanda, gorenko kalitateaz gozatu genuen!—, eta Jakoba Errekondok liburuaz emandako azalpenak testuinguru horretan primeran egokituko zirela pentsatu zuten. Baita asmatu ere.

Beste askotan bezala ureztatzeari buruzkoak izan ziren zalantza gehienak. Errekondok oro har baratzea ez ureztatzeko egiten duen gomendioa ikasitakoa deseraikitza behartzen ditu entzule doazkion ia guztiak. Zer esanik ez Frackanpadan, Araba erdialdeko lautada arrearen bihotzean. Egia absoluturik ez dagoenez, eta baratzean inon baino gutxiago, tokian tokikora eta unean unekora egokitu beharra izan zen han bildutako hogeit bat lagunok motxilan eraman genuen ondorio nagusia.

Bizi Baratzea liburuaz Errekondok Ainhize-Monjolosen emandako hitzaldiaren bideoa ikusgai www.argia.eus/multimedia helbidean.



Eskuratu liburua sinaturik

Bizi Baratzea ARGIAN erosiz gero, Jakoba Errekondok eskuz sinatutako hitz batzuekin jaso dezakezu liburua.

Egileak herriz herri ematen dituen hitzaldietan ere (ikusi ondoko zutabean non-noiz) baduzu sinaturik eskuratzeko aukera.

Eskaerak

Salneurria: 23 €
Harpidedunentzat: 19,50 €

☎ 943 371545
www.argia.eus/denda
denda@argia.eus

Zure saltokian liburua salgai jartzeko, deitu.



@bizibaratzea · Informazio gehiago: www.argia.eus/bizi-baratzea

AURKEZPEN SOLASALDIK

herriz herri

Jakoba Errekondok baratzeari buruzko bere jakintza herritarrekin partekatuko du Euskal Herri osoan.

Hauek dira ondorengo hitzorduak:

Irailak 18
Ozaeta

Ordua eta lekua zehazteke.

Irailak 22
Alegia

Ordua eta lekua zehazteke.

Irailak 23
Algorta

Egizu! elkarteak antolatutako Uribe Kostako Irakurzaleen Txokoaren barruan.
19:30ean, lekua erabakitzeke (eguraldiaren arabera)

Irailak 24
Urduña.

19:00etan, lekua zehazteke.

ANTOLATU ZURE HERRIAN

Jar zaitez gurekin harremanetan eta behar duzun informazioa eskuratu duzu.

sustapena@argia.eus
☎ 943 371 545

Fukushimaren inguruko isiltasuna gainditzen

ARNOLD GUNDERSEN ingeniari nuklearrak Fukushimaz dituen iritziak behin baino gehiagotan jaso ditugu zientziari buruzko atal honetan. Fukushimaz leherketaz ia inork hitz egiten ez duen honetan, Gundersenek hitz gutxitan laburbildu du hango egoera.

Batetik, ingeniari estatubatuarrek gogorazti du zentraleko 1, 2 eta 3 unitateak kalte izugarriak jasan zituztela eta egun zuloz beteta daudela. Zulo horietatik etenik gabe ari da ura isurtzen eta lurrazpiko urekin nahasten. Ur kutsatuaren zati handi bat Ozeano Barera doa, gutxi gorabehera 300 tona eguneko. Kontuan hartuz istripua gertatu zenetik 1.500 egun igaro direla, 23.000 kamioik meta dezaketen ura isuri da jada itsasora. Orain urtebete ezartzen hasi zen izotzeko hormak porrot egin du, ez baitu ur isurketa eragotzi. Egoera horrek hainbat hamarkada iraungo du.

Bestetik, Japoniako prentsaren jokabidea dugu. Japoniako botere politiko eta ekonomikoek ezarritako isiltasuna gaindiezina dela dirudi. Isiltasun horren azpian mehatxuak eta isunak daude.



Arnold Gundersen.

Azkenik, datu ofizialen inguruko gezurrak aipatu behar dira. Gehienetan, gezurrak akatsak bailiran ezkututzen dira, batez ere datu hotzei buruzkoak. “Garai hartan emandako datuetan huts bat zegoen, baina konpondu egin dugu” gisako argudioak erabiltzen dira.

Hamarkada luzetan hainbat azpiegitura nuklearren kudeaketan inplikazio zuzena izan duen Gundersenen hitzek ekartzen digute Fukushimaz amesgaiztoa behin eta berriro gogora, batez ere Japoniako Gobernuak milaka pertsonari

Egunero, Fukushimaz isuritako 300 tona ur kutsatu iristen dira Ozeano Barera.

Fukushima inguruko lurretara itzultzeko baimena eman dienean. “Isiltasun legeak” eragindako operazio estetikitzat har ditzakegu Gobernuak bultzatutako itzulerak; izan ere, hamarkadak beharko dira minbizi kasuak azalera-tzen hasteko. ■

Plutonen ur-izotza dagoela uste dute zientzialariek

Uztailean NASAren *New Horizons* espazio-zunda Plutonera hurbildu eta hango argazkiak eta datuak bidaltzen hasi zen. Irudietan ikus daitekeenez, izotzeko mendiak daude Plutonen; mendion ezaugarriak kontuan hartuta, zientzialariek uste dute izotz hori urez osatuta dagoela. Oraindik ongi ulertzen ez den jardura geologiko oso aktiboa dagoela ere behatu da.

ttiki.com/340780

(Euskaraz)

Zenbat euri egiten du munduan?

2000 eta 2010 artean neurtutako datuetatik abiatuta, AEBetako zientzialari talde batek ezarri du urtero 400.000 kilometro kubo euri egiten duela munduan. Horietatik 116.500, lehorrean. Eta horietatik 45.900 ibai eta erreketan biltzen dira eta gainerakoa lurrindu egiten da.

ttiki.com/340781

(Gaztelaniaz)

Tabako pakete neutroa

Parisen egindako bilera batean hamar herrialdetako gobernu ordezkariak lehen urratsak ematen hasi dira tabako pakete neutroa sortzeko bidean. Hau da, tamaina, kolore eta tipografia bereko paketea sortu nahi dute, logotiporik gabekoa. Neurria indarrean dago honezkero Irlandan eta Australian, eta batez ere gazteak erretzen hastea eragozteko du helburu.

ttiki.com/340783

(Frantsesez)

Babeslea: **iametza Interaktiboa**

ideia batetik errealitatera


web garapenak


multimedia


aholkularitza


edukiak

iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16

Ezkongabeen, pixaren eta askatasunaren gaineko zergak

ERROMA, K. A. 357. Manlio Capitolino kontsulak *Vicesima Libertatis* zerga ezarri zuen; esklabo bat askatzean esklabo horren balioaren hogeiren bat ordaindu behar zen. Tito Livioaren (K.a. 59-17) hitzetan: “Kontsul horrek ez zuen ezer aipagarriarik egin, aurrekaririk gabeko berrikuntza bat izan ezik: esklabotzatik askatzearen gaineko ehuneko bosteko zerga proposatu zuen. Senatariak, legeak funts eskaseko altxorriari sarrera oparoak ekarriko zizkionez, onartu egin zuten”. Bide batez, diru sarrera gehigarriak patrikaratzeaz gain, Manlioren asmoa askatutako esklaboen (libertoen) kopurua mugatzea zen, Erroman zerbitzuen eta lurren eskaerak gora egin ez zezan.

Tito Livioaren esanetan erabakiak ez zuen aurrekaririk, bai ordea ondorengo mordoa. Batzuk bitxi askoak, gainera. *Vectigal urinae* edo pixaren gaineko zerga Vespasianok kobratu zuen lehenengoz; kontuan hartu behar da gernua ez zela hondakin hutsa, besteak beste detergente modura erabiltzen zuten salgaia baizik. *Aes Uxorium* delakoak, aldiz, adin jakin batera ezkongabe iristen ziren gizonezkoak zergapetzen zituen; gaur egun ere ezkontzeak zerga-onurak dakartza.

Portorium merkatariek produktuak saldu ahal izateko ordaintzen zuten zerga zen, hirietan sartzean, portueta-ri iristean eta mugak zeharkatzean kobratzen zieten.



Gustave Boulangerren *Esklabo azoka* (1882). Esklaboek askatasuna lortzeko %5eko BEZ modukoa ezarri zuten antzinako Erroman.

Vectigal Rotarium ibilgailuen—kasu honetan, gurdien—zirkulazioaren gaineko zerga zen. Galtzaden erabileraz zergapetzen zuten, egungo autobideetako ordainsariak bezala, eta bildutakoa galtzada horien mantentze lanetara bideratzen zuten.

Oinordetzaren gaineko *Vicesima Hereditatum* zerga Augusto enperadoreak sortu zuen. Diru kutxa publikoan hildakoak utzitako ondarearen %5 sartu behar zen, hileta gastuak kenduta, hiletengatik bildutakoa legioetako betaranoei erretiroa ordaintzeko

erabiltzen baitzen. Gaur egun bezala, salbuetsitako gutxieneko bat zegoen, Augustoren garaian 100.000 sestertziokoa.

Centesima rerum venalium edo *Vectigal rerum venalium* zerga ere Augustok ezarritakoa da. Lurren, etxebizitzaren, animalien... salmenta-prezioaren %1 biltzen zuten, nagusiki gastu militarrei aurre egiteko. Esklaboak salgai bereziak ziren, nonbait, eta prezioaren %4 ordaindu behar zen.

Erroman justizia ez zen unibertsala, ezta doakoa ere. Auziaren edukia eta prozesuaren kostua balioztatzen zuten, eta kopuruaren berrogeirena *Quadragesima Litium* zergaren bidez jasotzen zuten.

Benjamin Franklinek ederki esan zuen: “Ez dago ezer ziurrik, heriotza eta zergak izan ezik”. ■

Arrastoak

Duela 14.000 urteko dentista

S. BENAZZI



VILLABRUNAN (Italia iparraldean) 1988an aurkitutako gizaki baten arrastoak—zehazki, beheko hirugarren hagina—aztertu du berriki Boloniako eta Ferrarako unibertsitateetako ikerlari talde batek. *Scientific Reports* aldizkarian argitaratu dutenez, haginak duen txantxarra nahita tratatu zuten; ehun infektatua garbitzeko punta mikrolitiko bat erabili zuten.

Orain arte, hortzeriaren tratamenduen frogarik zaharrenak Neolitikokoak ziren (duela 9.000-7.000 urtekoak). Baina Villabrunako gizakia duela 14.000 urte datatu dute eta, beraz, Goi Paleolitoaren amaierakoa da txantxarra sendatzeko ahalegina. Horrenbestez, odontologiaren lehen mugarrak gutxienez 5.000 urteko jautzia egin du iraganera. ■

ALAIN-G. GAGNON, QUEBECTAR POLITOLOGOA

«Identitateari buruzko eztabaidak Quebec nazioaren zatiketa ekarri du»

Quebecoko Unibertsitateko zientzia politikoetako irakaslea elkarrizketatu dugu Montrealen. Quebecoko ikuspegi federalistan eskola egin duela esan liteke, 2006an argitaratu zuen *Le fédéralisme canadien contemporain* liburuarekin.

TESTUA ETA ARGAZKIA:

| JENOFA BERTHOKOIRIGOIN |

1980an ukan zenuten Quebecen burujabetzari buruzko lehen erreferenduma. Soilik hogei urte lehenago zen burujabetzaren aldeko mugimendua hazi eta egituratu.

Burujabetza gosea azaltzeko bi arrazoi daude. Batetik, frantses hizkuntza zikindua zelako. Bestetik, lan munduari doakionez, frankofonoek ez zituztelako anglofonoen postu berak eskuratzen ahal. Hori 60ko hamarkada arte. Poliki poliki, frankofonoek erabakiko zuten proiektu politiko bat martxan jartzea.

60ko hamarkada bukaeratik aitzina frankofonoen egoera hobetuko da.

Quebecoko frankofonoek luzaz balio gutxiko betekizunak izan bazituzten, bat-batean, Iraultza Lasaia-
ren eraginez, lan merkatuan eta sektore publikoan kausitu ziren, ez ziren baitezpada elite anglofonoaren menpeko, eta hizkuntza propioan adierazten ziren. Horri esker zen mugimendu independentista justifikatua izan. Kasu, ez zen tirabirarik gabe egin, Quebecoko eta Kanadako anglofonoekin tentsio azkarrak zituzten. Bestalde, kanadar gobernuak Quebecentzako hautsi-mautsi bat osatzea zuen xede, baina saiakerak gehienek porrot egin zuten.

Hautsi-mautsiekin independentzia gosea ahultzea zukeen helburu Kanadak.

Hori alde batetik, baina oroitu behar da ere Kanadako Gobernuak Erresuma Batuko Konstituzioa aberriratu zuela 1982an. Konstituzioaren baitan zegoen eskubide eta askatasunen kartak Quebecen zuena estaltzen zuen. Gainera, Erresuma Batuko Konstituzioa aberriratu, Quebecen zuen beto eskubide konstituzionala ezeztatutik zela jakinarazi zuten. Ordura arte, aldaketa konstituzionalak oztopatzeke eskubidea genuen, baldin eta aldaketa horiek ondorio negatiboak baldin bazituzten Quebecen iraupen kultural, politiko ala

sozialarentzako. Aberriratzear geroztik, oztopatzea baldintzapean egin daiteke bakarrik, hots, hamar probintzietarik zazpi ados baldin badira, eta biztanleriaren %50 osatzen badute. Quebecen ez du sekula hori onartu.

Hori guztia bigarren erreferendumik ez antolatzeke gisan.

Argi eta garbi. Jarduteko aukera guztiak kendu nahi zizkion Quebeci Kanadak. Baina aldi berean erabaki horien eraginez geroz eta quebectar gehiago ziren abertzaletasunari begira. 1995ean egindako bigarren erreferendumean %49,4 lortu zuen baietzak.

1980an baietzak %40,44 ukan zuen, 15 urte geroago %49,4. Punpe handia da.

Autogobernatu daitezkeela ohartu ziren quebectarrak. 1980an, unibertsitateetarik berriki ateratako diplomatu freskoak genituen, 1995ean haatik, quebectar frankofono arrakastatsu andana kausitzen genituen kargu ekonomiko, sozial ala politikoekin. 1980an dudak baldin baziren, 1995ean ez zen horrelakorik, konfiantza eta estimua sendoturik zuten. Baina beste efektu bat ere badu horrek: erreusitu zutenek

“Egungo gazteak jada independente sentitzen dira. Autonomia indibidualaren alde dabilta borrokan, ez autonomia kolektiboaren alde. Zerbait galdu da bidean”



diote Kanadaren barnean izanki dutela lortu. Horrez gain, gaur egungo gazteak jada independente sentitzen dira. Frantses hezkuntza dute, edozein lanpostutan egon daitezke, azkenean anglofono baten aukera berdina ukan ditzakete. Autonomia indibidualaren alde dabilta borrokan, ez autonomia kolektiboaren alde. Zerbait galdu da bidean.

Frankofonoek jasandako bazterketak gainditzeko burutu Iraultza Lasaia burujabetzaren aldeko iraultza izan zela erran daiteke?

Iraultza Lasaiarekin estatuaren nazionalismoa eraiki zuten, eta Estatuaren eraikitze horrekin zen abertzaletasun sentipena loratu. Estrategia abertzalea zen baina ez baitezpada independentista.

Diozu abertzaletasun sentipena Estatuaren eraikitzearekin garatu zela. Ez ote zen Estaturik 60ko hamarkada aitzin?

Oso ahula zen, oso funtzionario gutxi zen 60ko hamarkada aitzin. Betebehar handiak, hots, irakaskuntza eta osasuna, elizaren kontrolpean ziren.

“Hirugarren erreferenduma egin dadin hiru baldintza behar dira: begitartetsu izatea Quebecera heldu diren guztiekin, neurrizko ikuspuntuak plazaratzea eta duintasun gosea”

Sekulako aldaketak denbora gutxi.

Iraultza Lasaia dela diogu, baina oso aktiboa izan zen eta erabat zangoz gora jarri zuen dena.

“Independentzia” hitza ez zen agertzen erreferendumentako galderetan. Zergatik?

Lehenen burujabetza-elkarte aukera aipatzen zen, bigarrean aldiz burujabetza-partaidetza. Azken finean, quebectarrak ez dira sekula separatistak izan. Zinez arraroa da. Kanadako anglo-esfera gure irudimen sozial eta politikoaren barne dugu, nahiz eta arras harreman gutxi ukan. Jatorri kanadar frantse-sekoak diren quebectar horiek zuten nolazbait Kanada eraiki, gutzia kolonizatuz. Azken finean, haien burua lehen kanadar gisa daukate anitzek. Horregatik zaie zaila eraiki

“Nahi duguna da Lehen Naziokoek [autoktonoen komunitateak] Quebecentzako proiektu politikoan parte hartzea”

duten herri horretaz bereiztea. Iraultza Lasaiaren ondotik, “quebectar” gisa definituko ziren, ordu-ra arteko “kanadar frantsesa” identitatea alde batera utziz, oso zentzu etnikoa zuelako.

Aldaketa hori sentituko da mezu independentistan ere.

Bigarren erreferendumaren garaiko proiektu independentista Quebecoko herritar guztientzat zen; berdin zion hizkuntza, jatorria, tradizioa ala lantokia zein zuen. Oso iraultzailea zen hori garairako. Tentsioak ere eragin zituen Quebecetik kanpo ziren beste kanadar frantsesekin, abandonatze gisa bizitu zutelako aldaketa.

Ingelesa hitz egiten den Ipar Amerika baten erdian, nola konbentzitu etorkin bat frantsesa ikasteko garrantziaz?

Argi da ingelesa mugikortasunaren eta nazioarteko harremanen hizkuntza dela. Baina pentsa dezakegu ere frantsesa lehen hizkuntza duten beste 30 herriez. Ondare kulturala babesteko eta garatzeko garrantzia ere hor da. Espero dugu Quebecera datorrenaren arrazoietan frantses hizkuntz komunitatearen barne sentitzeko nahia ere badela.

Hizkuntza batek biziraun dezake bere nazioa independente izan gabe?

Hizkuntza batek bere instituzioak behar ditu eta instituzio horiek defenditu behar dira. Eguneroko erronka dugu hori. Adibidez, epe mugatu batentzako onartzen ditugun etorkin anitzek nahi lukete frantsesa ikasi, baina ez dugu instituziorik hautu estrategiko hori egiteko. 90eko hamarkada aitzin ongi errezipitzen genituen, baina gaur egun ez da nahiko diru bideratzen

betebehar horri. Komunitateen partetik egiten dira etorkin biltzeak. Adibidez, juduen komunitatea Argentinako juduei begira dago. Juduek gehienetan hebrearra mintzo dute, baina ez baitezpada frantsesa. Uzte horrek kostu izugarriak ukanen ditu epe luzera, jendarte egitura porroskatzen duelako. Etorrkinen gurekin eraiki behar dute biharko Quebec.

Mugimendu independentistaren ahultzea begiratzan badugu, ez ote dira alderdi independentisten aldetik hutsegiteak izan?

Bai, eta elementu garrantzitsu bat da. Elkarriketa hau 2013 ala 2014ean egin bagenu, arras ezberdina izango zen errealtatea. Mugimendu sozial aberats batetik atera berri ginen [2012ko ikasle mugimendua], politika beste modu batera egin nahi zela sendi zen. Mugimendu independentista oldar berri batean zen.

Baina...

Quebectar Alderdiak irabazi zituen hauteskundeak. Anitz erabaki hartu zituzten, eta horien artean anitz txar. Horra non Balioen Kartari buruzko eztabaida abian jarri zutela, identitateari buruz. Jendarte egitura arras ahuldu zuen eztabaidak, Quebec nazioaren zatiketa gertatu zen orduan, eta azken urteetako elementu tristeetarikoa dugu. Burujabetzaren gaia hauskor bihurtu zen eta hori interes txiki zikoitz batzuegatik, immigrazioari buruzko diskurtso ezegokia duen Geroa Koalizioaren zelaira sartu nahi izan zuelako Quebectar Alderdiak, boto gehiago biltzeko. Mugimendu independentistaren ahultzearen arduraren parte bat dutela argi da.

Talde independentista guztiak Oui Quebec egituraren baitan batu berri dira.

Eskoziako eta Kataluniako egoeraz inspiraturik, mugimendu abertzalea jendarte zibilaren baitan kokatu nahi dute. Goizegi da jakiteko Oui Quebec egiturak herritarren parte hartzea sustatuko duen.

Autoktonoen komunitateak badira Quebecen. Nola lortu daiteke fran-

“Bere burua lehen kanadartzat du anitzek, horregatik zaie zaila eraiki duten herriaz bereiztea”

tsesen etortzea aitzin ziren populu horiek zapalduko ez dituen Quebec independente bat?

Federalismo multinazionala nozioa erabiltzen dut usu. Funtsean, horretan oinarritzen da hemengo proiektua. Horri begira aitortu behar da Quebectar Alderdia dela autoktonoen aldarrikapenei begira irekiena izan. Zehaztu dezagun ere, autoktonoen hizkuntzak Quebecen direla gehienik irakatsirik.

Dena ez da polit.

Horretara nator. Hori guztia erranez ez dut erran nahi ez dela diskriminaziorik ala arazorik. Lehen Nazio horiekin lan egin behar dugu; elkarlanaren bidez da hobeto ulertzen bestearen errealtatea. Segitu behar ditugu eta haiek ere segitu behar gaituzte. Berdin dio egitasmoak independentistak ala federalistak diren, nahi duguna da Lehen Naziokoek Quebecentzako proiektu politikoan parte hartzea.

Noizko hirugarren erreferenduma?

Bizi naizeno izango da bat seguruenik. Baina gazteriaren esku da, haiek dute erabakiko izango den ala ez. Hirugarrena gerta dadin, gazteriak irekia, pluralista, anitza eta esku zabala izan beharko du. Horri gehitu behar zaizkio hiru baldintza: begitartetsu izatea Quebecera heldu diren guztiekin; neurrizko ikuspuntuak plazaratzea, dena ez delako beltz ala txuri; eta azkenik, duintasun gosea. Dauden instituzioek ez badute nazioaren emantzipazioa ahalbidetzen, orduan berriak sortu beharko dira. Nazioaren duintasuna lanjerrean izanez gero, baliteke gazteriak proiektu politiko bat eramatea eta horrek independentziara eramatea. Konfiantza dut, oharzen naiz indibidualki zein kolektiboki gazteriak emantzipatu nahi duela. ■

«Energi trantsizioa gutxi batzuen esku utz dezakegu, edo aukera baliatu herritarrak ahalduntzeko»

Energiaren alorrean herritarren burujabetza sustatzen duen Ecooo enpresa atipikoko koordinatzailea da Cote Romero (Madril, 1968). Ardura bera du 2012an -Ecoooen ekimenez- jaiotako Energi Eredu Berri Baterako Plataforman. Bilbon egindako energi trantsizioari buruzko jardunaldi batzuetan izan da berriki, eta aukera baliatu dugu berarekin hitz egiteko.

| UNAI BREA |

Zer da Ecooo?

Rara avis bat. Hasteko, enpresa da baina irabazi asmorik gabekoa. Hamar urte daramagu energiaren esparrua jende arruntarengana hurbiltzeko ahaleginean. Energi eredu aldatzeko erronka mahai gainean dago, eta zenbaitzuek herritarrei bizkarra emanez gauzatu nahi dute. Baina jendeak parte hartu behar du. Energi ereduaren aldaketa abagunea da eredu ekonomiko eta sozialaren aldaketa ere egiteko, argi geratu baita orain artekoa ez dela gai

pertsona guztien beharrak asetzeko. Eta abagunea da lehenbiziko aldiz munduko herritarrek aukera dutelako, teiltuan panel fotovoltaiko bat ipiniz, transnazional handiekin lehiatzeko.

Eredu aldaketa, abagunea ez ezik, premia ere ez al da?

Bada, eta egin egingo da, zalantzarik gabe. Konpainia handiak trabak jartzen ari dira orain, baina begien bistakoa da etorkizun hurbilean energia berriztagarriak izango dire-

la nagusi. Aldaketaren batere zale ez diren erakundeak, Morgan Stanley nazioarteko aholkularitza edo Abu Dhabiko Banku Nazionala esaterako, euren bezeroei esaten ari zaizkie ez dezatela inbertsiorik egin erregai fosiletan. Arrazoi ekonomikoengatik eta ingurumenagatik energi trantsizioa egingo da. Trantsizio hori gutxi batzuen esku utz dezakegu, orain arte bezala, eredu zentralizatu baten barruan, edo aukera baliatu herritarrak ahalduntzeko.



UNAI BREA



CERP-CC BY SA

“Lehenbiziko aldiz munduko herritarrek aukera dute, teiltuan panel fotovoltaiko bat ipiniz, transnazional handiekin lehiatzeko”.

Zer ezaugarri eduki beharko luke eredu berriak?

Lehenik eta behin, energia aurreztean, efizientzian eta energi kultura zuhurrean oinarritzea. Bigarrenik, iturri garbi eta hurbilekoak erabiltzean. Eredu hori, egia esanda, konpainia erraldoien menpe egon liteke, baina izan gaitzen buruargiak, eraiki dezagun eredu demokratiko bat. Argi dago berriztagarriak nagusi diren eredu batean beharrezkoak izango direla planta handiak (eguzkiaren energia termikoa aprobetxatzeko, hidraulikoa...), eta horiek herritarren esku egotea zailagoa dela, baina herritarren jabetzak garrantzi handia izan behar du. Eta zer esanik ez, ereduak soziala izan behar du. Energia ezinbestekoa da bizimodu duina izateko, ezin liteke gerta inork bizimodu hori ezin garatzea gutxieneko energia eskura ez izateagatik. Laburtuz, eredu garbia, demokratikoa eta soziala behar dugu.

Esan duzu energia (eta ura, etxebizitza...) merkatutik kanpo egon beharko litzatekeela. Hau da, ez litzatekeela egon behar inoren irabazi asmoen menpe.

Hala da. Irabazteko asmoa duten

enpresek ez dute bultzatuko sistema efizienteago bat, eta estatuak ere ez daki horri konponbidea ematen. Gure ikuspegia ez da merkatuaren araberakoa, ezta estatuen araberakoa ere, publikoa eta kolektiboa baizik. Dagoeneko funtzionatzen ari diren gauzak erreplikatu behar ditugu; Alemanian, esaterako, udalek protagonismoa daukate hornidura-sareetan, eta herritarrek udal kudeaketa kontrolatzeko bitartekoak dauzkate. Irabazteko asmoak, berriz, gero eta faktura garestiagoa ordaintzera garamatza. Horrek etekinak ematen dizkio elektrizitatearen oligopolioari, baina bestelako onurarik ez du. Eta oligopolio hori oso boteretsua da. Trantsizio energetikoaren eta, are gehiago, zentzu komunaren aurka doazen legeak diktatzeko gai da.

“Eguzkiari zerga ez da indarrean jarri, baina mehatxua nahikoa izan da autokontsumoak atzerakada izugarria jasateko”

Ecoo-n eta Eredu Energetiko Berri Baterako Plataforman sistema elektrikoaz hitz egiten duzue batez ere, baina guztizko energia kontsumoaren portzentaje txikia hartzen du horrek.

Bai, zoritxarrez gaur egun sistema elektrikoaz hitz egiten da gehienbat, baina beste arlo batzuetan ere lan egiten dugu: beroa, garraioa... Edozelan, sistema elektrikoari arreta emateak lagundu egiten du energiaren arazoa jendearengana hurbiltzen. Sektorea oso opakoa eta nahasia da, eta ia inork ez du ulertzen. Jendeak ulertzen duen gauza bakarra da zenbat ordaindu behar duen hil amaieran. Espainian, ingurumen kultura eta energi trantsizioari buruzko kontzientzia hain eskasa izanik, argindarraren fakturaz hitz egitea da bide zuzenena gai horiek lantzeko. Kontuan har dezagun faktura hori %73 garestitu zela 2007tik 2013ra.

2013an, Espainiako Gobernuak auto-kontsumoari buruzko dekretuaren zirriborroa idatzi zuenean, “eguzkiari zerga” izenez ezagutu dena barne, zuek *Desobekientzia* kanpaina abiatu zenuten. Azkenean erreforma ez zen gauzatu ordea.

Horri erantzun baino lehen, aurrekariak ezagutzea komeni da. Erre-

forma egiten hasi zen unean, Gobernuak agindua zeukan oso mekanismo onuragarria garatzeko: balantze garbiko autokontsumoa. Alegia, nik etxean instalatuta dutudan eguzki-panelek –esate baterako– energia ekoizten dute ni etxean ez nagoenean, eta energia hori zuzenean txertatzen da sare elektrikoan. Hala, une berean nire etxe inguruan kontsumi daiteke. Azpiko dendan, kalearen bestaldeko eskolan... Ez dago eraldatu eta milaka kilometrora eraman beharrik. Gero, ni etxera itzultzen naitzenean, sare elektrikotik energia eskuratzeko eskubidea daukat, sare horretara bidali dudanaren truk. Sistema hori mundu osoan ari da zabaltzen eta mesedegarria da klima aldaketaren aurkako borrokan, mesedegarria da familien faktura merkatzeko... Edonor izan daiteke ekoizle, eta fluxu-trukea egin sarearekin. Gainera, ez duzu sortutako energia inon gorde beharrik; sareak berak egiten du bateriarena.

Baina...

Baina horren ordezkari Gobernuak aipatu duzun zirriborroa egin zuen, eta hura eskandalua izan zen. Atzerriko kazetarien dei mordo jaso genuen, ez baitzuten ulertzen nola ezar zitekeen halako arau bat: norberak ekoiztutako energiari zerga. Arauak akats juridiko asko ditu, baina Gobernuak oso zuhur jokatu du bi urte hauetan: ez du indarrean jarri, baina zergaren mehatxu hutsa nahikoa izan da estatu osoan autokontsumoak atzerakada izugarria jasan dezan.

“Iberdrolak eta abarrek berriztagarrien garapena geldiarazi behar dute, ziklo konbinatueta egindako inbertsioa berreskuratzeko”

Beste zirriborro bat egin dute berriki.

Bai, noiz eta ekainaren 5ean, Ingarumenaren Nazioarteko Egunean. Eguzkiari zerga ez da ageri dagoneko, baina badira beste neurri onartezin batzuk. Adibidez, Tesla enpresak apirilean iragarri zuen Powerwall bateria kaleratuko zuela, merkatuan dauden besteak baino hiru aldiz merkeagoa, eta jakinik hori oso tresna ona dela autokontsumoa sustatzeko, zirriborroak metatzea debekatzen du, hau da, bateriak edukitzea, eta egon badauden kasuetan zerga ezartzen du energia pilatzeagatik. Gainera, autokontsumoa galarazten die elektrizitatearen Bonu Soziala daukatenei, hau da, pobrezia energetikoa jasaten dutenei edo jasateko arriskuan daudenei. Administrazioak egin beharko lukeena kontrakoa da, hain zuzen: Europak efizientzia sustatzeko ematen dituen funtsak familia horien etxeetan panelak jartzeko erabili. Dekretua onartzen bada lau zuzentarau europarren aurkakoa izango da, hala nola Estatuko hainbat arauen aurkakoa, Konstituzioa barne. Juridikoki erraz deuseztatu ahal izango da, baina edozein kasutan argi adierazten du zein den Gobernu honen borondate politi-

koa. Konpainia handien menpe daude, eta ate birakariak ondo olioztatuta dituzte gainera.

Konpainia horiek hamar urte barru energia iturri berriztagarriak eta autokontsumoa sustatuko dituztela esan duzu.

Lehenago ere bai. Horregatik esaten diogu jendeari azkarrak izateko eta nork bere elektrizitatea ekoizteko. Urte batzuk barru konpainia handi bat badatorkizu autokontsumoa finantzatzera, esan ezetz eta bilatu hurbileko enpresa txiki bat. Korporazio handien aurrean erresistentzia egiteko, sareak eraiki behar ditugu.

Zergatik ari dira konpainia handi horiek berriztagarrien garapena oztopatzen?

Iberdrolak eta abarrek, garai batean, inbertsio batzuk egin zituzten berriztagarrien alorrean, baina batez ere ziklo konbinatuko gas zentralak eraiki zituzten. 27 gigawatt guztira, hori oso potentzia handia da [energia mota guztiak batuta 100 gigawatt daude instalatuta Espainiako Estatuan]. Orain zentral horiek euren ahalmenaren %10ean ari dira lanean, berriztagarrien garapena dela eta. Beraz, garapen hori geldiarazi behar dute, inbertsioari etekina atera ahal izateko. Bestalde, sektore osoa suntsitzea lortzen badute, azkenean berriztagarriak gailentzen direnean –eta badakite hala izango dela– eurak izango dira arlo horretan ere jaun eta jabe. Horregatik eskatzen diogu jendeari GoiEener, Energia Gara eta halako konpainia txikiekin egitea argindarraren kontratua. Banatu dezagun pastela. ■





**ZINKUNEGI
OPTIKA**

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com

zuri begira

Hizkuntza egoerei aurre egiteko tresna

Langabetua naiz eta euskaldun berria. Beno, duela 25 urte ikasi nuen euskara eta ez dakit noiz arte izango naizen “euskaldun berria”, baina tira! Egia esan “berria” ez, baina “bakartia” banaiz. Euskara ikasi nuen sinetsita denok egingo genuela urrats hori, baina nire inguruan bakarra izan naiz, eta ez familian, ez kuadrillan ezin dut euskaraz egin. Gainera, iruditzen zait euskaraz ari naizenean, desiratzen egoten direla edozein aitzakia baliatzeko erdarara pasatzeko.

| MALEN ALDALUR AZPILLAGA |

Argazkia: Dani Blanco

HORRELAKO EGOERA batekin hasi daiteke, esaterako, EkoLingua solas-jokoa. DiKoma Ekintza-iker-kuntza Proiektuaren emaitza da mahai jolasa. Egunerokoan sortzen diren hizkuntza egoerei aurre egiteko baliabideak eskaintzea da helburua. EkoLingua (Ekologia Linguistikokoaren bidezko hizkuntza komunitatearen Ahalduntzea) mahai jokoa eztabaida du oinarri, eta bost-zazpi pertsonako taldeetan aritzekoa da.

Proiektua Eusko Ikaskuntzak eta Soziolinguistika Klusterrak garatu dute, besteak beste, ondoko bidelagunekin: Elhuyar, EHU, Bermeo, Zumaia, Oñati eta Errenteriako Udalak, HUHEZI fakultatea, Topagunea eta UEMA. Jolasaren iturburuan 2011n egindako hainbat topaketa daude, hala ere, 2012 eta 2014 urte bitartean gorpuztu zuten.

“Euskararen iraunkortasuna bultzatu eta hizkuntza gutxituen aldeko jarrerak hartzeko eztabaidatzea ezinbestekoa zela ikusten genuen”, dio Urangak. Hori dela eta, eztabaida ahalbidetuko zuten jolas baten bila hasi ziren; PlayDecide aurkitu zuten orduan. Aurretik, Elhuyar Fundazioak erabili zuen nanoteknologia oinarri zuen jolas bat egiteko: “Geure buruari



Bost-zazpi lagunen artean aritzeko jokoa da. Eztabaida jolasaren oinarrietako bat da eta ordu eta erdi iraun dezake aldi bakoitzak.

galdetu genion ea nola egin genezakeen hizkuntza-ekologia oinarri zuen jolas bat formatu horren gainean, eta horrela sortu genuen EkoLinguaA”.

Mahaiaren bueltan era anitzeko jendea bildu daiteke. Belen Uranga Soziolinguistika Klusterreko kideak uste du aberasgarria dela adin, jarduera eta euskararen ingu-

“Aberasgarria da adin, jarduera eta euskararen inguruko jarrera ezberdina duen jendeak elkarrekin jolastea”

ruko jarrera ezberdina duen jendeak elkarrekin jolastea. Bakoitzak tabloi antzeko bat du aurrean, bertan kartak batzen joatea da kontua, azken helburua jokoa egitea. Lau karta multzo bereizten dira; bakoitza kolore batekoa: Zuria (egoera), berdea (informazioa), urdina (eztabaidatzeko galdera) eta laranja (erronka).

Egoera bat abiapuntutzat hartuta —demagun hasieran aipatu duguna dela— hizkuntza-egoera zehatzak planteatu eta horien inguruan solastuko dira. Gero, informazio-kartelek hizkuntza ekologian oinarritutako argudioak lantzen lagunduko dio jokalaria; helburua, informazio hori aurreko kartetan planteatutako istorioekin lotzea da. Azkenik, eztabaida kartak daude, hauek, istorioetatik eta informazioetatik sortutako hausnarketa osatuko dute, ahalik eta karta-familia edo karta-multzo handiena lortuz. Hizketaldia baretzen edo norabidez urruntzen ari bada erronka txartela (laranja) erabiliko da jokalaria zirikatatu eta eztabaidaren muinera itzultzeko; maiz ez baita erraza zurrunbilotik ateratzea.

Nork jolas dezake?

Urangak dio hamabost urte ingurutik gorako edonork jolastu dezakeela: “Beharrezkoa da gutxieneko adin bat izatea, baina hortik aurrera edozeinek jolasteko modukoa da”. Hasteko, Erreterria, Zumaia, Oñati eta Bermeoko udal teknika-

riekin, Gipuzkoako Foru Aldundi-koekin, Ikastolen Elkartekoekin eta beste hainbat erakunde espezializaturekin egin zuten froga. Baina jada euskaltegi, lantegi, gaztetxe eta gainerako edozein tokitan erabiltzeko prest dagoela esan du Soziolinguistika Klusterreko kideak.

Hizkuntzaren gainean jarrera ezberdineko jendea batzea posible egiteko jokoa euskaraz eta gaztelaniaz dago eskuragarri. “Oso harrera ona eduki du orain artean. Jendeak erraztasun gehien duen hizkuntza hautatzen du eztabaidarako eta argudiaketetarako eta benetan intergarria da iritzi ezberdinak ezagutzea”, azaldu du Urangak.

Taldeka jolastu behar da ezinbestean, eztabaida jolas bat denez gero, bost, sei edo zazpi laguneko taldeetan aritzea gomendatzen da. Jolasak ordu eta erdi inguru iraungo du, karta bakoitzarekin gutxi gorabehera 30 minutu.

Jokoa bai? Zenbat?

EkoLinguAk hizkuntza guztien iraunkortasuna oinarri hartuta, hizkuntza gutxituen aldeko jarrerak sustatu eta komunitatea ahalmentzeko lagungarri izan nahi du. Gaia- inguruan hausnartzeko eta eztabaida sustatzeko jokoa zehar hainbat eztabaida-galdera planteatzen ditu. Honako hauek esaterako: Beharrezkoak al dira hizkuntza gutxituak? Modernoa al da elebarkartasuna? Zer da errespetua? Nora garamatza hizkuntzen arteko hierarkizazioak? Berreskuratu ala irabazi? Zein da hizkuntzarik garrantzitsuen?

Taldeak, ezinbestean, dinamizatzailer baten laguntza izango du: “Ikusi dugu dinamizatzailerak ezinbesteko garrantzia duela jolasean, bereziki, eztabaida eraginkorra izan dadin”. Horrela, informazio-kartak, eztabaida-kartak eta erronka-kartak

Hizkuntza ekologia oinarri

Hizkuntza ekologia, hizkuntza eta ekologia lotzen dituen pentsamendua eta praktika da. Hizkuntza, bere ingurumen naturalarekin lotzea du helburu. Urangak azaldu duenez, hizkuntza ekologian oinarritutako eztabaida pizten du jolasak, eta bakoitzak bere argudioak lantzeko parada eskaintzen du.

Hizkuntza zehatz bat ondorengo belaunaldiei osasuntsu transmititzeko, hizkuntza hori natural erabili behar da, bere funtzio pertsonaletan, kulturetan eta sozialetan. Horrela izango da hizkuntza hori iraunkorra. Hizkuntza ekologia hizkuntza guztiak bizirik eta osasuntsu garatzeko hizkuntzen iraunkortasunaz arduratzen dela azaldu du Soziolinguistika Klusterreko kideak. Bi printzipio nagusi ditu hizkuntza ekologiak: hizkuntza guztien balio unibertsala eta hizkuntza aniztasuna.

baliatuz, ahalik eta jokaldi gehienosatzea izango da helburua.

Pentsatzea, eztabaidatzera eta denen artean ondorioak ateratzera bultzatzen duen jolasa da EkoLinguA, lagunartean zein bestelako edozein zirkulutan jolasteko egokia. Euskararen erronkak mahai gainerratu, posizionatu eta eguneroko hizkuntza-egoerei aurre egiteko erremintak eskaintzen dizkigu. Soziolinguistika Klusterreko webgunean dago jolasa eskuragarri PDF formatuan. Ez da erraza ordu eta erdian bukatzen, baina behin hasita seguru ez zaretela aspertuko. Jokoa bai? Zenbat? ■

Babeslea: IVAP

 HERRI ARDURALARITZAREN EUSKAL ERAKUNDEA  euskal.eus	 Enplegu Publikoa Lan-eskaintzen harpidetza Lan-geltuak (Eusko Jaurlaritzak) Beste administrazioetako lan-eskaintzak Hautaketak Ondakortza, 2014-15eko Enplegu Publikorako eskaintza Ertzaitzaren XXV. Promozioa	 Prestakuntza Administrazio orokorra Toki Administrazioa Foru aldundiak Bereziki hizkuntza prestakuntza EYEU Prestakuntza jardueren homologazio prozedura	 Euskara Euskararen ikuskerak Hizkuntza eskakizunak Bereziki hizkuntza prestakuntza Argitalpenak Euskaraz lan egiteko baldintzak EZO - Hizkuntza Zehatzaren Ofizioa
--	--	---	---

Marcelo Usabiaga, ideiei eustearen ordaina

Frankismoaren errepresioa latz bizi izan zuen: 21 urte kartzelan, langile batailoietan esklabo, Meliton Manzanasek ere torturatu zuen. 98 urterekin hil da Marcelo Usabiaga Jauregi, ezkerreko ideiak alboratu gabe.

| URKO APAOLAZA AVILA |

MARCELO USABIAGA (Ordizia 1916, Donostia 2015) oso ezaguna zen oroimen historikoaren berreskurapenaren aldeko mugimenduetan. Bere lekukotza indartsuak ez zuen inor hotz uzten. ARGIAN ere azaldu ditu gerran eta Frankismoan bizitako esperientziak, Josu Chueca historialariaren eta Aitor Azurki kazetariaren eskutik.


Irunen hazitakoa, II. Errepublikara hasi zen Alderdi Komunistan militatzen eta 1934ko iraultzak porrot egin ondoren mugaz bestaldera ihesi zihoazen burkideak laguntzen jardun zuen. 1936an gerra lehertu zenean Irungo batailan parte hartu zuen; Aiako Harrietan anaia fusilatu zioten eta bera 1937an atzeman zuten Valentzian.

Usabiaga Donostiako Tolosa hiribidea egiten eduki zuten lanean, "harriz betetako bagoiak bultzatzten". Harik eta ihes egin eta

1978an, jadanik diktadorea hilda zela, Pikoketara jo zuen anaiaren hezurren bila. Gainerako fusilatuen senitartekoekin aritu zen lurra mugitzen: "Ez genuen hezur bakoitza norena zen jakin nahi izan. Berreskuratu nahi genituen, duintasunez lurperatu. Besterik ez". Errepublika garaiko argazkian, Marcelo Usabiaga ezkerrean lehenengoa, eta haren ondoan anaia Bernardo, 1936an fusilatua.

makien gerrillan sartu zen arte. 1944ko erasoan berriz atxilotu zuten eta Meliton Manzanaski inspektore beldurgarriak torturatu zuen: "Gela batean sartu ninduen Manzanasek: 'Aurrera joan, kabroi alena!'; eta mehatxuka: 'Beno, zuk denak ordaindu beharko dituzu!'". Baita ederki ordaindu ere, 21 urte igaro zituen kartzelan.

Azkeneko urteetan militantzia politikoa ez zuen bazterrean utzi



eta oroimen historikoa berreskuratzeko ekitaldietan parte hartu izan zuen. Aurten, apirilaren 14an Eibarren egindako ekitaldian, berak jaso zuen bandera errepublikarra. ■



TRAZOLA

TXAKOLINA, SAGARDO NATURALA ETA FRUTAK

Trazaola Baserria, 36 - Iurreta (Bizkaia)

☎ 946 816 044 - 685 716 044 - isasitxakolina@hotmail.com



EGA azterketa eztabaidagai

AURKEZTUTAKO LAURDENAK baino ez duela gainditzen-eta, PSE-EEk berrazterketa proposatu du. Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordeak, Patxi Baztarrikak, azterketa sakona egiteko konpromisoa hartu du.

PSE-EEren aburuz, aztertu beharra dago EGA mailako azterketa, gaur egun Hizkuntzen Europako Erreferentzia Markoa kontuan hartuta C1 maila dena. 2014. urtean, aurkeztu zirenen %26k gainditu zuen azterketa. Baztarrikaren ustez, ez da ahaztu behar goi mailako profesionalentzako ziurtagiria dela eta horrek maila jasoa eskatzen duela. Alabaina, azterketa gainditzen duen kopuruak kezkatzen du, eta lanketa sakona egingo dute.

Euskadi Irratian, Blanca Urgell Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburu ohiak adierazi zuenez, azterketara aurkezten diren ikasleen

profila ezagutu beharko litzateke eta datu hori esku artean izanda ondorioak atera. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleak aipatu ditu adibide gisa. Andres Urrutia Euskaltzaindiko buruak irratia berean adierazpenak egin zituen eta haren ustez gakoa ez da gainditzen dutenen kopuruaz aritzea baizik eta ea EGA azterketak kalean eta lantokian euskara erabiltzeko gaitasuna bermatzen duen.

Bestalde, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak adierazi duenez, A1 eta A2 mailak Hizkuntzen Europako Erreferentzia Markora egokitu dira. Hau da, bi mailetan ziurtagiriak eskuratu ahal izango dira eta azterketak euskaltegietan egingo dira. Ziurtagiriok ez dute baliorik administrazioko hizkuntza eskakizun modura, maila apalak baitira. Administrazioan aritzeko, gutxienez, B1 eskatzen da.

Euskara Zerbitzua Biarritzen



MINTZALASAI

Guraso eta haurrak iraileko "Mintzalasai" egunetan euskaraz gozatzen.

BIARRITZEKO Herriko Etxeak eta Euskararen Erakunde Publikoak hitzarmena sinatu dute, Herriko Etxean Euskara Zerbitzua sortzeko. Herri kontseiluak aho batez onartu zuen ekimena. 2015ean bi langile kontratatuko dituzte eta 2016an beste bat. Hainbat eremu landuko dituzte: hizkuntza politika, hedabideak, paisaia linguistikoa eta herriko etxeko langileentzat euskara eskolak.

EKONOMIAREN TALAIAN • TERMOMETROA

Aberatsentzako zerga pribilegioak ezabatu behar dira

POBREAK GERO ETA POBREAGO diren bitartean, aberatsak orduan eta aberatsago ari dira bihurtzen. Lana egin eta nomina duenak PFEZaren bidez ezinbestean ordaindu behar du zerga, ezin du ihes egin. Aurrezki txikiren bat duenak %15-20 ordaintzen du zergetan. Aberatsek aldiz, euren PFEZa sortzeko finantza-ingeniaritza oso bat edukitzeaz gain, eskura dituzte oraindik legalak diren sozietateak, eta horien bidez etekinak jasotzen segi dezakete zerga oso txikiekin: %1 baino ez dute ordaindu behar. Kapital aldakorrek inbertsio-sozietatez edo SICAV delakoez ari gara. SICAV bat sortzeko beharrezkoa da gutxienez 2,4 milioi euro eta 100 akziodun edukitzea. Datu ofizialen arabera, Espainiako Estatuan 2008tik 50.000 pertsona gehiago daude milioi bat eurotik gorako ondarea dutenak; azken urtean 17.000 pertsona gehitu zaizkio milioi dunen zerrendari. Mundu horixe da SICAVen atzean ezkutatu eta sozietate horietatik etekinak lortzen dituenak.

Krisia egon arren, SICAV kopuruak gora egin du eta errekorrak gainditu ditu. 2011n halako 3.000

sozietate inguru zeuden eta 24.000 milioi euro kudeatzen zituzten. Aurtengo maiatzean, 3.300 kontatu daitezke eta 36.000 milioi euro dira haiekin kudeatutakoak. Zerga erregimen pribilegiatu hori aberatsen mesederako pentsaturik dago, ez dezaten gehiago ordaindu behar, areago, gutxieneko sinboliko bat baino ez dezaten ordaindu.

Justizia eta zerga-berdintasunaren izenean, sozietate horiek ezabatu egin behar dira, iruzurra baitira. Orain arte, alderdi politikoez –PSOEk agintzen zuenean barne– ez dute ezer egin horiek ezabatzeko, alderantziz, sustatu egin dituzte. Eta aberatsek patrikak diruz bete dituzte. Ondo legoke indarrean datozen eta Moncloara iristeko aukera izan dezaketen alderdi berriek euren hauteskunde-agendan apuntatzea gai hori. Jende guztiak ordaindu dezala bere irabazien arabera: gehiago irabazten duenak gehiago ordain dezala. Aski da hainbeste zerga-pribilegio eta bidezidor!

Juan Mari Arregi

Xabier Letona



DANI BLANCO

Mama goxoa jauregian

IRAULTZA SINBOLIKOA

da Nafarroan euskarari gertatzen ari zaiona, ez gehiago ez gutxiago. Maiatzeko udal loraldian ikusi ziren lehen printzak. Eta joan den astean Uxue Barkosen inbestidura eta kargu-hartze saioetan edota Nafarroako Gobernu berriaren eraketa ekitaldian ezinezkoa posible egin zen: boteretsua ez, baina euskara botere hizkuntza bihurtu zen Nafarroan.

Joan den astean Nafarroako Legebiltzarrean diputatuen erdian aurikular dantza aski adierazgarria zen. Ainhoa Aznarez, Uxue Barkos, Koldo Martinez, Adolfo Araiz, Laura Pérez... haien jarduketan euskara sinbolikotik oso harago zihoan. Berdin Barkos lehendakari kargua hartu zuenean, eta baita gobernu berriko kideek karguari zin egin ziotenean ere. Hizkuntza mozkorraldia izan da.

Egunerokoa bestelakoa da, oinezko euskaldunak ondo dakien gisan. Ondo dakien moduan Ana Ollo sailburuak izendatuko duen Hizkuntza Politikarako idazkariak. Egunerokoarekin dute zerikusirik euskaraz jarduteagatik Joseba Asironek eta Arturo Golderazenen jasotako txistuek; edo Legebiltzarrean Espartzak, Chivitek eta Beltranek egin protestek. Baina zer esan, txistuak oso adierazgarriak eta kontuan hartzeokoak izateaz gain, jauregiko bozgorailuek hizkuntza babesten dute nean, askoz samurrago irensten dira. Areago, akaso lagunak arrazoi du: “Segi, segi dezatela horrela, haien izaeraren argazki bikaina baitira txistuak”.



EZIN UKA polita geratzen dela: “Nafar guztion lehendakaria izango naiz”. *El Corralito Foraleko* egile Iván Giménezek ondo aztertu du orain arteko “guztien lehendakariak” noren mesede aritu diren azken mendean eta ez dator oso bat esaldiarekin: “Agian hori esan behar da, ez dakit. Baina hori ezin da horrela izan. Gobernu guztietan hartzen diren erabakiak, batzuen mesederako eta beste batzuen kalterako izaten dira, nahitaez” (ARGIA, 2015-7-19).

Barkos guztien lehendakaria da, bai, baina gobernu programaren gauzatzearekin batzuk besteak baino gehiago mesedetuko ditu: herritar xumeak, gehiengo, izaera publikoa, euskara, baztertuenen eskubideak, ingurumena... eta boteretsu asko ez dira batere poztuko. *Corralitoa* ondo ezagutzen duten Jose Antonio Sarriak –CEN, enpresarien elkar-teko burua– eta Javier Tabernak –Merkatu Ganbera– txalo gutxi egin zioten Barkosi. Are gutxiago ekitaldietan egon ez ziren militar, guardia zibil eta Elizako goi kargudunek.

Laura Perezen Legebiltzarreko ele sutsuek kontrakoa adieraz bade-

zakete ere, ez da inongo Neguko Jauregirik hartu Nafarroan, baina egunotan irentsitako jauregi puskek kamamila goxo dira Sanfermin biharamuneko barren zigortuetarako.

MEDITERRANEOAN bai, han Kataluniako independentziaren Potemkinak aurrera darrai, zuzen irailaren 27rantz. Artur Masek abuztuaren 3an iragarriko ei ditu hauteskundeak eta

orduan ikusiko da PPren Gobernuak nola erantzuten duen: bat, orain arteko Rajoy estiloarekin, hots, utzi pasatzen; bi, lege iruzurra aitzaki hauteskundeak Konstituzio Auzitegira eramanez; hiru, zuzenean, autonomia deseginez.

Autonomia desegitearena ez da aurrakusten garai honetarako. Hauteskundeak Konstituzio Auzitegira eramatearena bai eta honek hauteskunde prozesua geldiaraziko luke, baina baieztatzeko aldeko gasolinari sua botatzea litzateke. Arriskutsuegia. Beste behin ere Rajoy doktrina gailenduko dela dirudi: “denborak esango du”. Eta garaio esaten dute independentismo katalanak gaitz izango duela plebiszitua irabaztea, eta egungo Europar Batasunak ez duela batere begi onekin ikusten estatu txiki berrien sorrera; eta Espainia estatu boteretsua dela orandik.

Baina soberanistek gobernu berria hartuko dute, eta –baieztatzeko indarraren arabera– Espainiako Gobernu soken kontra jar dezakete. Denak adierazten duenez, Katalunia-Madril talka biziki areagotuko da datozen bizpahiru hilabeteetan. Guztia Espainiako hauteskunde orokorren bezperan. ■

ASTE HONETAKO

zozketa



Argiako harpidedunentzat

GARRAXI



Garraxi jatetxea

Bi pertsonentzako
otordu bat

Tejeria kalea 9 - Donostia
Gipuzkoa

1

Eureka! Zientzia museo

2 lagunentzako
bina sarrera

Mikeletegi, 43
Donostia GIPUZKOA

www.euskalmuseoa.es

2



STM

San Telmo Museoa



San Telmo museoa

3 lagunentzako
bina sarrera

Zuloaga, 1
Donostia GIPUZKOA
www.museosantelmo.com

3

22m²

KARRATURA

5 CD opari

www.elkar.com

4



ILLIMANI

Boliviako izpiak
eta hizkiak



Illimani

liburua opari

www.argia.eus/denda

5

AZKEN IRABAZLEAK (2470. Argia)

LAR ZALDIAK

Ana M. Zubiarremerteria Olañeta (Eibar)

AQUARIUMA

Jesus Peñagarikano Labaka (Ibarra)

Andoni Alba Salaberria (Iruñea)

Getxoko Euskara Zerbitzua (Getxo)

Adolfo Masid Balda (Hernani)

EKAINBERRI

Larraitx Mitxelena Erize (Oñartzun)

Imanol Aranburu Artano (Alegia)

Isabel Etxeberria Ramirez (Astigarraga)

PISTOLAK ETA EPISTOLAK

Enaut Beloki Lizarralde (Donostia)

Josune Arandia Belaustegi (Lemoa)

KAMISETA

Igor Agirre Uriarte (Tolosa)

* Bisitaldietarako epea: Bi hilabete

PARTE HARTZEKO

Astelehenetik ostiralera 08:00-15:30

Tel: 943 37 15 45 • gunea@argia.eus

www.argia.eus/gunea

gunea

argia



PASOLINI

ROMA

Marmich



**San Telmo
Museoa**

Erakusketa

**2015
6.20/10.4**

#pasoliniroma

Antolatzaileak:

STM

San Telmo Museoa

donostiakultura.com



Ekizleak:

CCCCB Centro de Cultura Contemporánea de Barcelona



Erakunde Babesleak:



Patrono Pribatuak:



EL DIARIO VASCO



Enpresa Ongileak:



berria



Euzkoar Batasunaren Kultura programaren laguntzarekin / Con el apoyo del programa Cultura de la Unión Europea

